

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko ekainak 18

197. zenb.


**Sorgin Punky,
ume kantarien
opera**

**Badator dragoia
sua dariola**

**Kuadrila taldeak
jaiak boikotatuko ditu**

**San
Juanak 93**





SAN JUAN JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE
ARRASATEKO
UDALBATZAK
ARRASATEAR
GUZTIOI

ZUEN ZERBITZUAN:

AUKEA, ITURBIDE EGOITZA, UDALAKO INGURUGIRO ES-
KOLA, DROGOMENPEKOTASUN ZERBITZUA, KIUB, ESKOLA
KONTSEILUA, GAZTERIA BATZORDEA, MONTERRON KULTUR
ETXEA, AMAIA ANTZOKIA.

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**



**AFARI ETA
BAZKARI
EDERRAK!**

Tfnoa: 71 46 08

**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
ZELULOLIPOLISIA.**

Zelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54


VE ECUADOR

Bidaiak


Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



Arrasatearrok!

Iaz orroa egin zuen herensugea, aurten maldan behera dator. Arrasateko umetxook, bi ardura edukiko dituzue aurtengo San Juanetan; buruandiak eta herensugea zaintzea, harrapa ez zaitzaten. Plazaraino sartzeko asmotan omen dabil.

Gertu egon, ba, errementariok! Burdina goritua erakutsiko diogu, piztitzar horri bildurra sar dakion.

Eta gero, denok, hemen gauden denok, jaia ospatuko dugu. Hemen ez zaudetenoiz eta bereziki preso eta errefuxiatuoi aurtengoz, agur t'erdi.

Atsegin dakizuela egitaraua, atseginago jaiak.


Ondo passau!

Alkatea

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxe: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oñden (77 08 15).
Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabier

Zergatik apuntatu zara tanborradara?



Sergio Valderrama
2. mailako ikaslea
(8 urte)

Betidanik gustatu izan zaidalako. Aurtengoa lehen aldia da eta barrilero jantziko naiz.



Jone Montero
5. mailako ikaslea
(11 urte)

Nere lagunak apuntatu direlako eta betidanik gustatu izan zaidalako. Entsauietan behintzat gustora nabil, nahiko erraza da eta.



Gaizka Romero
3. mailako ikaslea
(9 urte)

Gustatu egiten zaidalako. Gainera, joan zen urtean ere apuntatu nintzen eta ordutik asko gustatzen zait. Aurten barrilero jantzia eramango dut.



Lorea Galion
2. Mailako ikaslea
(11 urte)

Bada, iaz ere ibili nintzen eta asko gustatu zitzaidan. Horregatik aurten ere apuntatzea pentsatu nuen eta gustora nabil. Iaz barrilero eta aurten eskozesa jantzia eramango dut.



Amaia Carrillo
1. mailako ikaslea
(6 urte)

Denbora pasatzeko. Nire lehengusua ere aurten apuntatu da eta berak animatu ninduen. Barrilera jantzita joango naiz eta jadanik dena ikasita daukat.




Iker Moral
7. mailako ikaslea
(12 urte)

Denbora pasatzeko. Nire gelako batzuk apuntatu ziren eta eurek animatu ninduten. Tanborrero joango naiz.



Maitane Nuñez
1. mailako ikaslea
(6 urte)

Uste dut tanborradako zuzendariak nire aitari esan ziola eta nik baietz esan nion. Horregatik apuntatu naiz eta gustora nabil. Baina erraza da, ikastola baino errazagoa.



Mikel Arkauz
6. mailako ikaslea
(11 urte)

Asko gustatzen zaidalako. Gainera, beste bi aldiz ere ibili naiz. Aurten tanborrero jantziko naiz baina ia denak berdinak dira, errazak.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Memesa

79 42 22

Onduline TXOMIN HERIZ




eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE



KAJOI TABERNAK

**Bere 6. urtebetetzean
eskerrik beroenak
arrasatear guztioi!!**




Ondo jaztea eta gainera eroso joatea gustatzen barairu...

Elisabeth

Zugandik hurbil eta harrituko zaituen prezioekin
San Andresen, autobus geltoki ondoan.

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa: 77 14 86



KIROL BAKOITZERAKO ERANTZUN BAT.

ARRASATE KIROLAKek
jai zoriontsuak opa dizkie
Arrasatear guztiei!



ARRASATE
KIROLAK

Kontzesiño, 8

Tfnoak: 79 46 12 / 77 12 47

ARRASATE

Zeintzuk dira herriko jairik onenak?



Zipriano Irigoien
Jubilatua (71 urte)

Neretako Sanjuanak, gazterixientzako badiez hor porrejenplo Kajoi edo Maritxu Kajoi eta horreik, eta baliteke gaztientzako horreik hobe izatie. Baina neretako Sanjuanak.



Isabel Gallastegi
Langabezian
(26 urte)

Santamasak, akaso egunbat delako, horrela, nahiko herrikoa. Sanjuanak ere gustatzen zaizkit baina Santamasak gehien gehien.




Vicente Zugasti
Fagorreko langilea
(42 urte)

Igual Santamasak. Sanjuanak gelditu dira apurtxo bat, ez dakit nola esan, apurtxo bat deskafeinatuak.




Izaskun Zubizarreta
Etxekoandrea
(42 urte)

Neretako Sanjuanak. Gero Maritxu Kajoi igual geixo da, baiña nik naixo dot Sanjuanak.



Saioa Uriarte
Ikaslea
(16 urte)

Santamasak, ambiente hobe egoten da Santamasetan. Maritxutan jende larregi egoten da.



Mikel Balenziaga
Lan Kide Aurrezkian
lanean
(34 urte)

Zigarrolakoak, honbre! Egon zara sekula? Sanjuantetan ez da egoten ezer, baina han, bueno, egunero jo ta ke.



Larraitx Larrañaga
Ikaslea
(17 urte)

Sanjuanak esaten dute, baina ni ez naiz sekula egon. Aurten geldituko naiz lehenengo aldiz, eta orduan esan gotzut.



Juan Irigoien
Jubilatua
(76 urte)

Sanjuanak, bai lehen eta bai orain, Sanjuanak die polittenak. Gero, Santo Tomas politta izaten da hemen, Santo Tomas be bai.

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

•••••
Uherkape

Uherkape"ren kontuan zuzenean sartuta daudenen arazoa konpontzeko ezintasunak, honek denori dakarkigun galerak eta gaia zuzentzeko tardantzak bultzatu nautz gutun hau idaztera.

Herriko komunikabideen bitartez jarraitu dut gaia, nire erretiro egoeratik, eta larunbatean jakin izan nuen azken Udalbatzen gizartean sortu diren arazoei irtenbidea eman nahian, gaia desblokeatu eta obrak jarraitzea erabaki zela. Oso ongi deritzot erabaki honi, zeren eta, nire ustez, inongo interesek, eta are gutxiago ekonomikoek ez dute justifikatzen sortutako egoera hau. Nahiz eta zuzenena inplikaturako talde guztiek akordioa onartu, benetako irtenbidea luzerako doa.

Baina, Azatzako bizilagunek herriarekiko daukaten isiltasunak nauka harrিতa nagusiki euren segurtasun arazoengatik kontra egiten zutela kontutan izanik. Darabiltzaten ordainpideak egia badira, zergaitik ez diote herriari azaldu euren jarrera, tribunaletan bakarrik hitzegiten dutelarik eta berriz Udalbatzan erabakitako obren jarraipena galarazteko prest daudenean?

Beraien interes ekonomikoen bidezko defentsa egiteko eskubide osoa dutela uste badut ere, sortutako egoera kontutan izanik eta haietako asko aurreramendu amankomunaren "Elitea" izanik, euren jarrera kontsideratu beharko luketela uste dut egoera txarrago batera heldu baino le-

hen, beti defenditu eta zabaldu dituzten ideiekin kontsekuente izanik, eta ez bakarrik aldamenekoari tokatzen zaiotnean. Euren jarrera Arrasateko herriari argitzen ez badiote non geldituko da euren sinesgarritasuna?

Azkenik, hau esango nieke zuzenean ukitutako guztieri:

"Hobea eta merkeagoa da akordio txar bat auzi onena baino".

Poztuko ninduke, harrokeri eta handinahiaren pozoia alde batera utziz eta denontzako irabaziarekin, partehartzailen elkarrizketa zintzoak eta arrazionalak egoera honekin bukatuko balu.

MONDRAGOETAR BAT

•••••
**Goian bego,
Txomin Altube**

Zein azkar joan den urtea!!

Gogoratzen dituzue, Arrasatearrok, orain dela urtebete pilota munduko pilotari, pilotagile, enpresari, apostutzaila eta zaletuok Arrasaten nola batu genituen?

Lan asko eta ona egin zen Arrasateko batzorde antolatzailan jai hura aurrera ateratzeko.

Lerro hauen bitartez orduan laguntzaila fin izan genuen Txomin Altube Pilotarien Batzarreko lehendakaria, omendu gura genuke, aurren utzi egin gaituelako. Agur Txomin eta eskerri asko, pilota munduak beti izango du zurgan erreferentzi bat.

**ARRASATEKO PILOTA
BATZORDEA**

•••••
**Zezenketak
direla eta**

Bai, Luis Fernandez, ba dirudi mundu honetan animaliekiko krudelkeriak zutik iraungo duela; pertsona asko baitago zure pentsamendekoa. Inoiz ez baduzu ezertaz borrokatzen, makurragorik egon leikelakoan, txarto zabiltz. Zure aholkua: ondo deritzogu zuek zezenen sofrikarioaren aurka azaltzea, baina har ezazue gogoan animaliei sorfiazteko era asko dagozela!

Zer da "lidia-zezena"? Naturak sortu duena "Zezena" izan da —soilik—, "lidia" hori zezenzaleek asmatuak delarik. Hiztegiak honela dio: lidiari = torear, beraz behiak daudenez, zezenak ere badaude. Animalia bat arraza ezberdinekoa izan dadin, ez da aski zenbait pertsonak hala esatea, baizik morfologikoki hala izatea!

Bestalde, badago zer esanik "gune bereiztuetan" bizi diren animalietaz. Esparru edo dehesa handiak Parke Natural bilaka leizke, non zezenak beren balio estetikoengatik erreklamu turistiko izango liratekeen. Pozgarria litzateke, bestalde, animalia-mota batzuek torturatuak izateko hazi ordez, askatasunean hazten lagatzea.

Zezenak asko sofritzen du eta modu askotan. Diozunez, guzti horrek ez dizu axola. Guk, berriz —naturaren parte eta ez jabe garenez—, animaliekiko krudelkeria salatuz jarraituko dugu, ez baikara gizakiok beste animalia batzuek.

bestarik.

Ziur gaudelako sozietatea ezin dela ez aurrerakoia, ez eta justua izan eta izango duela bake eta askatasunean bizi izan animaliek sofritzen dutela ohartu gabe, hauek objektutat erabiltzen dituen artean. Ezin izango dugu aurrera pausurik eman, agintek direlako "ikuskitun" sadiko horiek debekatzen ez dituen artean.

ARRASATEKO EKI

•••••
Gazte Mobida

AEDko Gazte Mobidari buruzko artikuluan, besteak beste agerketan zen gazte talde honek harremanak izan dituela herriko beste gazte talde batzuekin eta ondoren aipatu egiten zen zeinekin. Zerrenda hauetan, nahiz eta guk aipatu izan kazetariari, ez zen agertu Orkatz Skaut Taldea, gure partetik huts hau zuzendu gura dugu inor ez dugulako gutxi eretxi gura eta aipatu, gazte talde horrekin harreman onak ditugula.

AEDKO GAZTE MOBIDA

**Jaietan ere
zuekin izango
gara**

Datorren astean, 24, 25 eta 26an, orrialde bereziak aterako ditu ARRASATE PRESSEK San Juanei buruzko informazioz blai. Ondo passau jaiak!!!


ONDO PASATU JAIK!

eya

ELEKTROTRESNAK

Argizatze tresnetan aurkera zabala

Iturriotz, 21 Tfnoa: 79 03 84 ARRASATE



YOSU THERMIK

Poliuretano, PVC eta aluminio aroztegia

INASA



PERFIL THERMIK

Lantegiak:

Zentrala: Kataide Pol. 4. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Delegazioa: Labegaraieta, 6 Tfnoa: 76 53 69 BERGARA

Jai zorientuak opa dizkizuegu!

AXULEI ETA ZORUEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA



Uribarri etorbidea, 22-B

ARRASATE

Tfnoak: 79 81 80 / 77 09 59

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igalatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 18
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gauez: Ruiz. Maala.

Larunbata 19
 Egunez: Morales. San Andres.
 Gauez: Morales. San Andres.

Igandea 20
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.
 Gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Astelehena 21
 Egunez: Español. Iturriotz.
 Gauez: Español. Iturriotz.

Asteartea 22
 Egunez: Corcuera. Musakola.
 Gauez: Corcuera. Musakola.

Asteazkena 23
 Egunez: Irizar. Erguin.
 Gauez: Irizar. Erguin.

Osteguna 24
 Egunez: Amezua. Santa Marina.
 Gauez: Amezua. Santa Marina.

19 LARUNBATA

ZINEA
 "Pasajero 57" (5,7.30,10)

PINTURA ERAKUSKETA
 Iñigo Arregiren pintura erakusketaren inaugurazioa. Arratsaldeko 7etan. Harresi aretoan.

BEINKEKO EUSKARAREN EGUNA
 Euskararen eguna: publizitateko euskararen erabilpenaren erakusketa, "Martin Agirre, euskaldun bat ameriketako konkistan" haur pastoralak, herri afaria eta erromeria...

ESKU PILOTA TXAPELKETA
 San Juan XIV. esku pilota txapelketa. Alebin A, B eta C, kadete eta jubenil mailatan. Goizeko 10.30etan. Iturripeko Frontoian.

TXIRRINDULARI LASTERKETA
 Benjamin, alevin eta infantil mailako txirrindulari lasterketa. Ibilbidea: Portaloia, Garibai, Otalora, Kondekua, Portaloia. Arratsaldeko 4etan.

UMEEN TANBORRADA
 Umeen tanborrada. Arratsaldeko 6.30etan. Kaleetan zehar eta Herriko Plazan. SUDCeK antolatuta.

AMAIA ANTZOKIAREN INAUGURAZIOA
 Sorgin Punky obrarekin Amaia antzokiaren inaugurazioa. Arratsaldeko 8.30etan.

DANTZALDIA
 Drindots taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etan. Herriko Plazan.

ROCK KONTZERTUA
 "Flying Rebolos" taldearekin rock kontzertua. Gaueko 9etan. Gaztetxean. Sarrera: 300 PTA.

20 IGANDEA

ZINEA
 "Pasajero 57" (5,7.30,10)

ELKARRIren FIRMA BILKETA
 Kaleetan mahaiak jarriko dira.

MAKALLAU LEHIAKETA
 Makallau lehiaketa. Epaimahaia: Bitoriano Agirre, Doyague eta Xabier Zubizarreta. Goizeko 10.30etan. Sebero Altubena.

HAUR DANTZARIEN EGUNA
 10.30etan Nafarroa etorbidean bildu. 11etan kaleetan zehar desfilea. Arratsaldeko 5etan dantzari talde guztien emanaldia, herriko Plazan.

ARDI TXAKURREN TXAPELKETA
 Ardi txakurren txapelketa. Goizeko 11etan. Kaja Laboralaren zelaietan.

SORGIN PUNKY OPERA
 Gorka Sierraren Sorgin Punky operaren estreinaldia. San

Frantzisko Xabier ikastolako ikasleek eta Arrasate Musikaleko orkestrak emana. Eguerdiko 12etan. Amaia Antzokian. Sarrerak: 1.000 PTA (Aurrez, S. F. X. Ikastolan, Hiren edo takilan).

PINTURA LEHIAKETA
 Toki Ageriko XII. pintura lehiaketa. Goizeko 9etatik aurrera. Monterronen. Egun horretan erakusketa zabalduko da Monterronen.

MENDI IRTEERA
 Villamardone-Valdereyora mendirteera. Irteera: goizeko 7etan. Garibaitik. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta.

ARABA EUSKARAZER AUTOBUSAK
 Araba Euskaraz Laudion. Beinkek antolatuta autobusak. Txartelak: Aretxabale-tako Beinke eta Arlutz tabernetan.

TORTILLA LEHIAKETA
 Haurrentzako tortilla lehiaketa. Arratsaldeko 6etan. Sebero Altube plazan.

DANTZALDIA
 "Eguzki" taldearekin dantzaldia. Arratsaldeko 7.30etan. Herriko Plazan.



Sorgin Punky opera eguerdiko 12etan aurkeztuko da.

21 ASTELEHENA**ZINEA**

"Pasajero 57" (7,9.30)

UMEENTZAKO ANIMAZIOA

Sebastopoleko titiriteroekin umeentzako animazioa. Arratsaldeko 4.30etan. Sebero Altubena.

TXOPOA JASOTZEA

Arratsaldeko 5.30etan kuadrilak bilduko dira. 6.30etan txopoa jasoko dute, Herriko Plazan.

SALVE SOLEMNEA

Salve Solemnea. Arratsaldeko 7.30etan. San Juan Bataiatzailearen Parrokian.

ERREMENTARI DANTZA. SAN JUAN SUA

Errementari dantza: arratsaldeko 9etan, Ferrerías kaletik Herriko Plazara. San Juan sua errementari dantzarekin, gaueko 10.30etan. Herriko Plazan.

NAGUSIEN TANBORRADA

Azkoitiko musika bandarekin nagusien tanborrada. Gaueko 11etan. Herriko Plazan.

DANTZALDIA

"Gaubela" taldearekin dantzaldia. Arrasateko gaiteroen kalejira. Orduetatik aurrera. Herriko Plazan.

21 ASTEARTEA**ZINEA**

"Pasajero 57" (7,9.30)

GOIKOBALUREN KONTZERTUA

Goikobalu abesbatzaren kontzertua. Arratsaldeko 8etan. Amaia Antzokian. Sarrera doan.

23 ASTEAZKENA**ATBren PROGRAMAZIOA**

Eguerdiko 12.30etatik 2.30etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Sebero Altubena.

EUSKAL TONBOLA

Euskal Tonbolaren lehen eguna, 26a bitartean. Biteri Aparaklekuan. AEDk antolatuta.



Bergarako Udal Musika Bandaren emanaldiak Monterronen izango da.

24 OSTEGUNA**ZINEA**

"El libro de la selva" (5,7.30)

ATBren PROGRAMAZIOA

Eguerdiko 12.30etatik 2.30etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Sebero Altubena.

ZEZEN JAI

Zezen jai. Goizeko 9etan. Kondekua zelaian.

MEZA NAGUSIA

Meza nagusia. Goizeko 11etan. San Juan Bataiatzailearen parrokian.

ERRALDOI ETA KONPARTSAREN DESFILEA

Erraldoi eta konpartsaren desfilea. Goizeko 11etan. Kaleetan zehar.

BERGARAKO UDAL MUSIKA-BANDAREN EMANALDIA

Begarako udal musika-bandaren emanaldia. Goizeko 11.30etan, kaleetan zehar. Eguerdiko ordubatean Monterron parkean kontzertua.

JUBILATUEI OMENALDIA

80 urtetik gorako aitona-amei omenaldia. Eguerdiko 12etan, Abaroan.

KONTZERTUA

Begarako Udal bandarekin kon-

tzertua. Eguerdiko ordubatean. Monterron Parkean.

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA

Pottokak, zezentxoak... haurrentzako ikuskizuna. Arratsaldeko 7etan. Kondekua Zelaian.

KALEJIRA

"Ostada" txarangarekin kalejira. Arratsaldeko 7etan. Kaleetan zehar.

BERTSO SAIO ETA TRIKITILARIAK

Leintzeko bertsolariak eta Maixa eta Itziar trikitilariak. Arratsaldeko 7.30etan, Sebero Altubena.

ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUA

Arrasate Musikal orkestraren kontzertua. Arratsaldeko 8etan. Amaia antzokian.

DANTZALDIA

"Nueva Alaska" taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etan. Herriko Plazan.

TRIKITILARIAK

Maixa eta Itziar trikitilarien emanaldia. Gaueko 11etan. Sebero Altubena.

SUZKO ERRUBERA

Suzko errubera. Gaueko 11.30etan. Santa Barbaratik.



Salvea arratsaldeko 7.30etan izango da Parrokian.

25 OSTIRALA

ZINEA

"El libro de la selva" (5,7.30)

TXIRRINDULARI LASTERKETA

1. eta 2. mailako afizionatuen-
tzako txirrindulari lasterketa.
Ibilbidea: Arrasate, Eskoria-
tza, Arrasate, Eskoriatza,
Arrasate, Gatzagain, Arrasate,
Eskoriatza, Arrasate, Gatzagain,
Arrasate. Goizeko 9.30etan.

KUADRILENTZAKO TXOKOLATADA

Kuadrilrentzako txokolatada. Goizeko 7.45etan. Herriko Plazan.

ZEZEN JAIA

Zezen jai. Goizeko 9etan. Kondekua zelaian.

ATBren PROGRAMAZIOA

Eguerdiko 12.30etatik 2.30etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Sebero Altuben.

ERRALDOI ETA KONPARTSAREN DESFILEA

Arrasateko erraldoi eta konpartsa-
ren desfilea. Goizeko 11etan. Kaleetan zehar.

BERGARAKO BANDAREN EMANALDIA

Bergarako musika banda gaztearekin kalejira. Goizeko 11.30etan. Eguerdiko ordubatean kontzertua, Montterronen.

HAURRENTZAKO PARKEA

Haurrentzako parkea: kars pis-

ta, puzgarri erraldoia, zezen mekanikoa, tren... Eguerdiko 12etatik ordubietara. Zaldibar pilota lekuan.

TXALAPARTAREKIN KALEJIRA

Txalaparta txarangarekin kalejira. Arratsaldeko 7etan.

BERTSO SAIOA

Andoni Egaña eta Euskitze bertsolarien emanaldia, Rekalde Anaiak trikitalariekin. Arratsaldeko 7.30etan. Sebero Altube Plazan.

ANTZERKIA

"Visto y no visto" kale antzerkia Trapu Zaharrak taldearekin. Arratsaldeko 8etan. Herriko kaleetan.

GOIKOBALUREN KONTZERTUA

Goikobalu abesbatzaren kontzertua. Gaueko 10.30etan. Amaia Antzokian.

ROCK JAIALDIA

"MCD", "Iskanbila" eta "Kemando Ruedas" taldeekin rock kontzertua. Gaueko 11etan. Zaldibar Pilotalekuan.

TRIKITILARIEN EMANALDIA


Rekalde Anaiekin trikitalari erromeria. Gaueko 11etan. Sebero Altube plazan.

DANTZALDIA

"Bries" taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etan. Herriko Plazan.

ZEZEN SUZKOA

Zezen suzkoa. Gaueko 12etan. Herriko Plazan.



Pilota desafioak izango dira Zaldibarren larunbatean.

26 LARUNBATA

ZINEA

"El libro de la selva" (5,7.30)

ATBren PROGRAMAZIOA

Eguerdiko 12.30etatik 2.30etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara. Sebero Altuben.

DIANA

Arrasateko gaiteroekin diana, goizeko 8.30etan, kaleetan zehar.

ZEZEN JAIA

Zezen jai. Goizeko 9etan, Kondekua zelaian.

TRIKITILARIEN KALEJIRA

Arrasateko trikitalariekin kalejira. Eguerdiko 11.30etan. Kaleetan zehar.

KUADRILEN KONTZENTRAZIOA

Kuadrilen kontzentrazioa eta txalaparta saioa. Eguerdiko 12etan. Sebero Altuben.

KUADRILEN BAZKARIA

Kuadrilen bazkaria. Eguerdiko 2.30etan. Zaldibarko Pilotalekuan.

ESKU PILOTA PARTIDUAK

Esku pilota partiduak. Arratsaldeko 6.30etan. Zaldibarko Frontoian. Pilotariak: Isturiz eta Txispas; Txikito de Veneras eta Txikuri.

KUADRILEN KALEJIRA

"Incansables" txarangarekin kua-

drilen kalejira. Arratsaldeko 7etan. Kaleetan zehar.

ERREMENTARI DANTZA

Errementari dantza. Arratsaldeko 9etan. Herriko Plazan.

DANTZALDIA

"Anker" taldearekin dantzaldia. Gaueko 10etan. Herriko Plazan.

TRONPALARI ERRETZEA

Tronpalari erretzea. Gaueko 12etan, Herriko Plazan.

SAN PEDRO JAIK ESKORIAZAN

Plater tiraketa, 3.30etan. Herriko jubilatuentzako jaialdia Gernika Plazan, 6etan, esku pilota finalak, 6etan Kontzejupan.

27 IGANDEA

ZINEA

"El libro de la selva" (5,7.30)

FUTBOL PARTIDUA

Mondragon C.F. eta Escobedo taldeen arteko futbol partidua. Arratsaldeko 5etan. Atxabalpen.

SAN PEDRO JAIK ESKORIAZAN

Eskoriatzako musika eskolako bandaren kontzertua, 1etan Herriko Plazan. Herriko frontoian herri kirolak, 6etan. Sarrera doan.



BENGOA

LURRINDEGIA • BITXITEGIA • OPARIAK

Zerkaosteta, 5 ARRASATE
Tfnoa: 79 28 85

BEATRIZ

**Poltsa eta
oinetako denda**

**Jai zorientsuak
denori!**

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE





MANGO


Postas, 5 GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 04 48

**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



CF
CARFRA

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

AED eta Seaska

AED elkarteari 630.000 pezetako dirulaguntza eman dio Udalak, Iparraldeko ikastolen Seaska elkartearekin udan zehar auzolanderia antolatzen Lapurdiko Kanboko ikastetxean. Izenemateak zabalik daude AEDn, 60 pertsonarentzat dago tokia, ez dago adin mugarik eta 10.000 PTA pagatu behar du bakoitzak (jana ordaintzeko, gainerako guztia AEDren kontu). Hiru txanda izango dira: uztailaren 4an, 18an eta abuztuaren 1ean hasiko dira.

Uherkapeko dekretua

Arrasateko udalak atzera bota ditu Uherkapeko horma egiteko agindua ematen zuen dekretuari aurkeztutako hiru alegazioak. Maiatzeko azken astean kaleratu zuen alkateak dekretu hori, Azatza auzoko bizilagunei eta Construcciones Irgala eraikitzaileari horma egin zezaten aginduz. Hiru alegazio aurkeztu ziren gero, eta hiruak bota zituen atzera asteleheneko udal Gobernu Batzordeak. Ondorioz, dekretua indarrean jarri da eta Azatzakoek eta Irgalak zazpi eguneko epea daukate mendi magalari eusteko pareta egiten hasteko. Obrak hasten ez badituzte, Udalak bere kabuz egingo ditu, baina kostuak besteei gaineratuz. Edozela ere, une hori heltzean epaitegien bitartez gelditu lezakete obra Azatzakoek.

**Etxe-aurreak berritzen**

Erdiko-Kalen etxe-aurre edo fatxadak berritzeko programa nola doan ikusi zuen Gipuzkoako Diputazio Hirigintza diputatuak, Anton Arbuluk, asteazkenean herrira egindako bisitan. Diputazioak 100 milioi inbertitu ditu Deba Garaian proiektu hauetan. Aurten, Arrasaten, 48 milioi inbertituko dira Erdiko-Kalen, Olateko kantoitik Sorgin-kantoiraino. Horiatarik 10 milioi Herriko Plazaren parean dagoen egurrezko balkonada ederreko fatxada berritzeko izango dira.

Lokal itxierak

Bi merkataritza lokal itxi ditu Udalak, araudi municipalak ez betetzeagatik. Zarugalde kaleko Zerbitzu Kontratazio Bulegoa eta Portaloi ondoko Eroski Bidaien lokal eraberritua itxi egin dituzte, hirigintza normetara egokitu ez izanagatik. Itxierak udal-tzaingoak zaindu ditu.

Fagor Arrasateren kontratuak

Alemanian eta Estatu Batuetan bi produkzio lerro instalatzeko 800 milioi PTAko kontratu garrantzitsuak lortu ditu Fagor Arrasatek. Altxairu ugar-

teztina prozesatzeko lerro bat instalatuko du Fagorek 'North American Stainless' konpainiaren Kentuckyko lantegi batean 600 milioigatik. Alemaniako AEGn plater-garbitzaileetarako atek egiteko lerroa jarriko da 200 milioigatik.

Deba Garaiko ikastetxeak

Deba Garaiko zortzi hezkuntza zentru koordinatzen dituen Hezibide elkarteak katalogoa aurkeztu du aste honetan. Katalogo honek Hezibideren historia laburra, filosofia eta helburu nagusiak biltzen ditu. Hezibidek duen

erreformaren proiektuaren berri ere eman zuten prentsaurreko batean. Bestetik, Deba Garaiko ikastetxe publikoek hezkuntza arloan daukaten eskaintzaren berri eman zuten asteazkenean Monterronen izandako hizketaldi batean.

JAIOTZAK

- Maite Gesala Madinabeitia. Maiatzaren 15ean.
- Aitor Azkarate Iglesias, 18an.
- Aitzol Mondragon Bumago, 26an.
- Pablo Cruz Arejolaleiba, 27an.
- Kattalin Rodriguez Arriaran, 28an.
- Andoni Ariño Larrañaga, ekainaren 2an.
- Aitziber Azaldeggi Garmendia, 4ean.
- Kevin Gomez Aparicio, 7an.
- Abel Arzamendi Perez de Ziriza, 7an.
- Nagore Perez Escobar, 10ean.
- Andoni Lapuerta Quintanilla, 11n.

EZKONTZAK

- Rafael Gonzalez Martin & M^a de la Soledad Otero Aranda. Maiatzaren 16an. Zibilez.
- Ernesto Fernandez Basterra & Mari Jose Balanzategi Agirreurreta, 29an, elizaz.
- Rafael Rodriguez Santiago & Pilar Fernandez Manchado. Ekainaren 5ean, elizaz.
- Alberto Garcia Soriano & Maria Jesus Barquero Calderon, 5ean, elizaz.
- Miguel Angel Fuentes Noguera & Ana Marta Alonso Roman, 5ean, elizaz.
- Pedro Joaquin Urra Irasuegi & Nati Sanchez Marco, 11n, zibilez.
- Jose Errondosoro Sorron & Maria Concepcion Martinez Lasheras, 12an, zibilez.
- Jesus Mari Akizu Azkondo & Maria Isabel Aguirre Eguen, 12an, zibilez.
- Viator Gussado Delgado & Manuela Sanchez Tena, 12an, elizaz.


HILDAKOAK

- Manuel Ziaurriz Lafuente. Maiatzaren 18an. 78 urte.
- Esteban Aranez Agirre, 20an. 80 urte.
- Jose Mari Aranzabal Gantxegi. 21ean. 95 urte.
- Maximo Arenaza Zugasti. 22an. 65 urte.
- Fidela Ugarte Urrutia. 23an. 80 urte.
- Trino Vila Cid, 26an. 58 urte.
- Emilia Merchan Pavo, 27an. 75 urte.
- Valentin Murua Telleria, 27an. 76 urte.
- Ignacio Beitia Aiausti, 27an. 58 urte.
- Antonio Alberdi Garamendi, 29an. 46 urte.
- Josefa Arrizabalaga Zubizarreta. ekainaren 3an. 89 urte.
- Andresa Errasti Urzelai, 8an. 88 urte.
- Angela Arano Garcia, 14an. 93 urte.

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

**Umeentzako moda**

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

Krisia latza den arren, MCC baikor

MCC taldeak (Mondragon Corporacion Cooperativa), duela 18 hilabete sortu zenetik honako ibilbidearen balantzea egin zuen ostegunean pentsaurreko batean. MCCko arduradunek, garai honetan izandako krisiak eragin handia izan duela nabarmendu zuten, baina kooperatibek egokitzen jakin dutela ere esan zuten. Egoera honek, errentagarritasunean izan du eraginik, eta soldatetan ere bai. "Beti jartzen dugu etorkizuneko ekintzen garantia epe laburreko interesen gainetik", adierazi zuen Jesus Mari Herrastik, MCCko Kongresuko lehendakariak.

Javier Mongelosek, Kontseilu Nagusiko lehendakariak esan zuenez, taldearen hiru arlo nagusien



Komunikabide askoren atentzioa deitu zuen MCCren prentsaurrekoak.

artean, industrialean nabaritu izan da gehien krisia. Denaden, finantz arloa (Euskadiko Kutxa eta Lagun-Aro) eta banaketa arloa (Eroski eta ingurukoak) martxa onean dabilta. hiru arlo hauen arteko elkarkidetzaz ahaleginaren garrantzia aipatu zuen Mongelosek, eta

horren adibidetzat Max Center proiektuak jarri zituen.

Arriortuaren planak

Etorkizunera begira, MCCko buruek helburu nagusiak markatu zituzten: bezeroarenganako ardura gehiago, nazioarteko merkatura irekitzea eta kooperatibetako bazkideen inplikazioa han-

ditzea dira horietako batzuk. Puntu hauek Kooperatiben IV. Biltzarrean tratatuko dira, uztailen.

Etorkizunera begira, enpresa gestioa eraberritzearen premia aipatu zuen Mongelosek. Horretarako, gestio diseinu berriak sartu behar direla esan zuen, eta hortaz, Jose Ignacio Lopez de Arriortua enpresari famatuak proposatutako gestio ereduak goraiatu zituen Mongelosek. "Arriortuaren ildoak jarraitu beharrekoa, eta IV. Biltzarreko ponentziak hortik joango dira", esan zuen MCCko arduradunak.

Arriortuarekin bueltaka, Volkswagen-eko enpresariak Zornotzan egin nahi duen auto lantegian MCCk ere parte hartuko lukeela adierazi zuten prentsaurrekoan.



ARRASATEKO UDALA

Euskara ikasleentzako bekak

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie 1993-94 ikasturtean euskara ikasten aritu diren arrasatearrei.

Eskaerak **uztailaren 16a baino lehen** aurkeztu behar dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.



Bi okupatzaile beren egoera azaltzen okupatutako etxeetako batean.

Ferixalekuko etxeak utzi egin beharko okupatzaileek

Ferixalekuko ikastetxearen goiko solairuan bizi diren etxe-okupatzaileek beren etxebizitzak utzi egin beharko dituzte uztail hasierarako, ikastetxe osoa goitik behera eraberritzeko obrak hasiko direlako. Etxebizitza hauek bertako irakasleentzat ziren eta gaur egunean, kontserjearen eta beste bi irakasleren familiak daude bertan, eta horrez gain, zazpi gaztek okupatutako hiru etxebizitza ere badaude.

Irakasle eta kontserjeari, beste hiru etxebizitza eskaini dizkie Udalak, baina eskuater edo etxe-okupatzailei bertatik irten egin beharko dutela esan die. Eskuaterrek iraba-

zirik ez dutela eta etxerik beren kasa ordaintzeko dirurik ez dutela esan diote udalari, eta alternatiba bat eskatu diote. Udalak ez dio oraingoz erantzun, baina ezezkoaren zain daude okupatzaileak. Nolanahi ere, etxeetatik borondatez ez direla joango diote, ez baitute nora, eta hortaz, atera egin beharko dituztela.


Ferixalekuko eskuaterrek duela bi urte-tik daude han. Bi pisu okupatu zituzten orduan, eta iaz beste batean sartu ziren. Oso txarto zeuden etxeak eta eurek konpondu dituzte, eta argia ere beren kasa ordaindu dute orain arte.

Ikerlaneko asanblada

Ikerlan zentroak ostegunean asanblada izan zuen. Bertan informatu zenez, 1.406 milioi PTako sarre-rak izan zituen Ikerlanek 1992n, kopuru horetan proiektu industrialetan izan delarik igoerarik handiena (%22). Urtean zehar, 78 proiektu eta 27 ikerketa egin dira 62 enpresarentzako. Aurrera begira, krisi orokorra kontuan edukita, enpresek ikerketa eta garapena gehiago sakondu beharko dituztela uste du Ikerlanek, eta hortaz beren ahalmen gutzia jarriko dute enpresen esku.

Gobernu Batzordea




Udal Gobernu Batzordeak Otalora, Maala eta Gipuzkoako Etorbidearen arteko errepide zatian bidegurutze berria egiteko proiektua enkargatzea erabaki du (LKSg egingo du proiektua). Bestetik, hiri zaharreko fatxada eta hormak garbitzeko 1.700.000 PTA destinatzea ere erabaki zen aste honetako Gobernu Batzordean.



OKORETEGI kafetegia

Juan Carlos Gerra Plaza, Tfnoa: 77 03 62

ARRASATE



■ Hilabetero: kamiseta, CD eta LP bat zozkatzen ditugu.

■ 600 artikulua bino gehiago deskontuekin!

• Diskoak

• CD

• Bideoa

• Dr. Martens

• Larrua

• Musika tresnak

• Kamiseten estanzazioa

UDALAITZ TABERNA

Jai zoriontsuak izan!!

Erdiko kale, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 20 61

HEMEN

Degustazioa

Croisantegia

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Sebero Altube Plaza, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 94 99

San Juanetan
Egazka
taberna

Loramendi., 1
Arrasate

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

CRB

Taberna

Garibai Etorbidea, 5

• GOSARIAK • PINTXOAK • GAU KOPAK

ONDO PASAIZU!

Tanbor hotsaren ordua



Umeen tanborrada 19an eta nagusia 23an izango dira. JABIER

Urtero bezala, eta aspaldiko ohiturari jarraituz, SUDCek antolatutako ume eta nagusien tanborradak izango dira San Juanetako jaietan ekintzarik adirazgarrienak, askorentzat bai, behintzat. Datorren larunbatean,

ekainak 19an, umeen tanborrada egingo da. Parte hartuko duten 250 umeek bezperan egin dute azken entsaiua eta jadanik dena prest dago biharko arratsaldeko 6.30etarako, ordu horretan hasiko baita San Juanetako umeen tanborra-

da. 200 nagusi ere entsaiatuetan dabilta, baina hauek denbora gehiago dute, ekainaren 23an izango da eta nagusien tanborrada. Tanborrada bietan beterranoak eskozesa joango dira eta gazteenak edo tanborradan lehen aldiz irtengo direnak, barrilero. Horretaz gain, dantzariak, sukaldariak eta beste ohizko pertsonaiak.

Umeen ametsa zaldietan irtetea da eta lau neska joango dira zaldian; nagusietan, berriz, bat zaldian

eta beste hiru abanderatu oinez. Bai batak eta bai besteak, ibilbide bera egingo dute, honako hau: Lanbide Eskolatik, ambulategi paretik irten, Laubide, Arbolapeta, Maala, Laubide, Portaloia eta Herriko Plazan bukatu. Umeen tanborrada arratsaldeko 6.30etan hasiko da eta 8.30etarako bukatzea espero da. Nagusien tanborrada, berriz, 23ko gaueko 11etan hasiko da eta bi orduko iraupena izango du gutxigarabehera.




Umeen tanborradako generala **Nestor Morales** izango da, SUDCeko abanderatua **Naiara Okina**, ikurrina **Ainhoa Vegak** eramango du eta Arrasateko bandera **Jone Gantxegik**.

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

San Juanetan girorik onena
IRATI tabernan

Ferrerias kalea ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Ekainaren 20an ospatuko da Haur Dantzarien Eguna.

Dantza taldeen fruitua

Datorren ekainaren 20an Haur dantzarien eguna ospatuko da Arrasaten. Lore gazteak, Txikitxuko umeak eta beste herri batzuetatik etorritakoak izango dira egun horretan protagonista nagusiak. Baina horietaz gain, Lore Gazteak eta Arroztaitz taldeak, hau da, nagusien taldeak, San Juanetako egitarauaren barruan dantzatuko dituzten dantzak entsaiatzen dabilta azken egun hauetan. Arroztaitz taldean 28 lagunek egiten dute dantzan eta Lore Gazteak taldean 25 dantzariak. Dantzari batzuk txiki txikitatik egiten dute dantza, baina beste ba-tzuk nagusi sartu ziren taldean, batzuk 20 urterekin esate baterako, "hala ere, guztiak ikasteko jarri duten interesakontutan hartzen badugu, oztopo guztiak gainditu dituzte, ez da bata

eta besteen artean desberdintasunik ikusten" esaten digu Marga Mercaderrek, Arroztaitz taldeko irakasleak. Adin aldetik ez dago mugarik, gazteenak 5 urte ditu eta nagusienak 30 gutxigorabehera.

Astean zehar talde bakoitzak entsaiuak egin arren, ostiralero talde bietako dantzariak biltzen dira, elkarrekin dantzatuko dituzten dantza desberdinak entsaitzeko. Aurtengo San Juanetan urteroko dantzez gain, Dragoiaren dantza berria dantzatuko dute: errementari dantza. Dantza hau San Juan bezperan eta hirugarren egunean egingo den Dragoiaren ikuskizunaren barruan sartuko da. Horretaz gain, beste egun batzutan beste talde batzuekin ikusiko ditugu kalean, 26an, esate baterako, txistulariekin irtingo dute.



Aste honetan egunero entsaiatu dute gaiteroek.

Iaz baino gaitero gehiago kaleetan

Orain dela 14 urte sortu zen Arrasaten gaiteroen taldea. Ordutik, urtero urtero San Juanetako jaietan parte hartu dute. 8 lagunek osatzen dute gaiteroen taldea eta iazko jaietan 3 gaitero eta 2 tanborrero irten baziren, aurten gaita eta tanborra joteko jende berria sartuenez, 4 gaitero eta 3 tanborrero ikusiko ditugu San Juanetako jaietan. 23, 24, 25 eta 26an goizeko eguneko diari jo etaherria esnatzea izango da euren helburua. Horretaz gain, herriko beste talde gehienak bezala Dra,

goiaren ikuskizunean, errementari dantzan hartuko dute parte. Bestalde, egun batzuetan txaranga bezala ere ikusiko ditugu kaleetan zehar, batez ere gau partean izango da hori.

Esan digutenez, ez da bat ere erraza gaita eta tanborra jotzen ikastea, gainera batak besteari laguntzen dio. Kalera jotzen irten baino lehen, gutxienez urtebeteko entsaiua behar izaten da. Aste honetan egunero entsaiatu dute euren lokalean.

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

ITSASKI

ARRANDEGIA


Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20



Parlance

INGELES

**1993-94 IKASTURTERAKO
MATRIKULA ZABALIK**

Izena emateko epea: ekainaren 14tik 25era

Informazio eta matrikulazioa:

Ferrerias, 11 etxabea. 5etatik 7etara Tfnoa: 77 06 83

JAI ZORIONTSUAK IZAN!

J. R. OTAMENDI

HARATEGIA

Ferrerias, 20 Tfnoa: 79 62 28 ARRASATE

San Juanetan, zatoz

CEPA RIOJANARA

Jatetxea / Taberna

**Ferrerias, 19 Tfnoa: 79 20 02
ARRASATE**



Umezaintzako 5 urteko 29 neska-mutiko Durango aldean Orobio auzoan dagoen maristen base- rri batean egon dira lau egunez. Urteroko ohitura da eta beti bezala primeran pasatu dute.

Askori gustatzen zaigu herriko jaiak herrian pasatzea. Hori dela eta, aurten ere soldaduzka egiten ari diren 19 kintok San Juanetako jaietan herrira etortzeko eskaera egin dute Udaletxean. Alkatearen izenean euren nagusiek eskaera gutuna jasoko dute laster. Ea zorte ona izaten duten eta jaietan herrian ikusten ditugun.

Pasa den igandean San Antonio eguna ospatu zen Urkiolan. Kuadrilako ohiturari jarraituz, Arristi eta beste 14 lagun oinez igo ziren Urkiolara. Baina, beste kuadrila batzuk ere hurbildu ziren, Garagarzako 28 lagunek ere bertan pasatu zuten eguna.



“Euskaldunon egunkaria”, “Txiki Press” eta “Egunkari txiki”, hauek dira San Frantzisko Xabier ikastetxean bigarren mailako ikasleek eginiko aldizkari jarri dizkieten izenak. Barruko orrialdeetan albiste desberdinak sartu dituzte: kirolak, inkesta, elkartolako bigarren mailako ikasleek eginiko aldizkari jarri dituztenak. Horrez gain, horoskopoa, txutxumutxuak eta abar.



Nuria Moreiras arrasatearra, datorren ekainaren 23an Galizia aldera joango da Xacobeo urtearen barruan antolatutako bidaia batean. 4-5 egun pasatuko ditu bertan eta Galizian hain ezagunak diren bertako dantzak dantzatuko ditu bidaian Nuriak.

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE



Urtero bezala, pasa den larunbatean Donostiako arrasatearrak bildu eta jai egun zoragarria pasatu zuten. 265 arrasa-

tear bizi dira Donostian baina horietariko 56 bakarrik animatu ziren pasa den larunbateko jaiari parte hartzera.

Sor Mari Cruz Velez de Mendizabal, Eskoriatzako Mertzedarien egoitzako monja arrasatearrak, Eskoriatzako San Pedro jaietako pregoia egin eta irakurriko du aurten. Datoren ekainaren 28an eta arratsaldeko 6etan izango da.



IZEN PROPIOAK

● Kili-Kili aldizkariak banatu ditu aurtengo sariak eta arrasatear ume hauek izan dira sarituak: **Ana Egidazu, Jokin Zubillaga, Marisabel Carmona, Maialen Gorosabel, Julen Abad, Aitor Vara, Jon Sanchez, Gorka Velez, Iratxe Diez, Asier Rubiales, Itziar Arrieta, Ekaitz Nafarrate, Joana Manzidor, Iker Oria, Naiara Maniega, Ismael Sanchez, Leire Cortes, Nagore Ezkibel, Andoni Carrasco, Amaia Gorostiza eta Jone Lezeta.**

● Corazon de Encina, Arrasateko estremeñoek asteburu honetan egin duten folk jaiari, **Maria Angeles Apolo**, aukeratu dute festako erregina. Eta ohorezko damak, berriz, **Marisa del Pozo** eta **Desire Chinarro** izan dira.

Bazter - Alai

INGELES A

**Uztailean ere
ingelesez!!
Talde txikiak**

Arrasate Pasealekua, 12 etxebaia ARRASATE
Tfnoak: 77 01 27 • 79 24 59



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
 Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
 ARRASATE

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

PEUGEOT · TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



FLORES MONNICA

• Koroak • Ezkontzarako lore sortak • Landareak • Lore gunek •

Mondragones kalea, 9 etxabea Tfnoa: 79 12 30 ARRASATE



MAZA

NOBEDADEAK

San Juan zorionsuak opa dizkiegu gure bezeroei!

Iturriotz, 2 Tfnoa: 79 21 60
ARRASATE

● *Gurutze Uribarren*

Sorgin Punky, erditze pozgarria

S. F. X. Ikastolaren 25. urteurrena ren barruan burutuko ziren ekintzen barruan egitekoa zen Gorka Sierraren obra. Atzerakizun ugariaren ondoren, zapatu eta domeka honetan izango da azkenean, Amaia antzokiaren estraindirako. Lan asko egindakoaren nekea, eta satisfazioa antzematen zaizkio Gurutzeri. Ikastolako ume guztiak bezala, bera ere sorginduta geratu da obrarekin.

—Atzerapenez, baina bator Sorgin Punky.

—Bai, aurreko ikasturterako geneukan pentsatuta, baina Amaia obra atzerapenak dena atzeratu du. Tartean aldaketak ere egin behar izan ditugu, iaz zortzigarren mailan zegoen ikasle talde bat, hamazortzi lagunak utzi egin dute ikastola eta horrek arazoak sortu ditu, kurtso hasieran barrian barri hasi behar izan dut eta, beste talde batekin. Bestalde, astuna izan da umeentzat obra ikasi eta gero hain luzaroan jardun beharra.

—Zenbat partaide zarete?

—Umeak bi taldetan daude. Alde batetik, 66, 5. maila-

tik 8. mailara bitartekoak. Gero Uribarriko txiki guztiek hartzen dute parte, 90 ume animalia jantzita. Bi horiek koruak izango dira. Gero Arrasate Musikal Orkestra dago, kanpoko musikari profesionalaz. 206 musikari guztira.

—Eta atzetik laguntzen dutenak?

—Dekoratu egiten hiru gaztek sekulako lana egin dute, ikusiko duzue zein ederra geratu den. Parques y Jardinesek dohainik utzi digu materiala, basoa osatzeko zuhaitzak. Egia esan, eskatu dugun laguntza guztia eman digute: Amagarako makilatazailak, Esluko ileapaintzailak, orduak eta orduak pasatuko dituzte lanean.

Nirea peoi lana izan da, koruak zuzendu eta umeei ahotsa lantzen erakustea. Ideia bururatu eta ordutik gauza aurrera eramatea izan da, Gorka Sierrarekin batera.

—Ez da obra berria.

—Ez, gazteleraz, antzertu izan da, baina euskaraz emango den lehen aldia da



hau, eta horixe da inportantea. Itzultzaile lanetan oso laguntzaile bikaina izan dugu, Jesus Garaitonandia; bizkaieraz egin du, eta oso eroso eta etxeko eta goxo geratzen da.

—Umeak zelan daude?

—Azken hilabete honetan oso gogor ari gara, egunero bi ordu sartuz, errekreio barik, eta egin duten esfortzua ikaragarria izan da. Musikaltasunetik eta sentsibilitatetik aparte, publikoaren aurrean egoten jakitea, diziplina, gorputzaren kontrola ikasi dituzte. Gurasoentzat, gainera, esan daiteke estudiante onak direla eta ez dutela eskolarik galtzen eta esperientzia ona izan dela. Denok gaude nerbio, baina era berean, arduratsu eta geure buruaren jabe, baikoitzak serio hartzen du eta bere lana. Ni behintzat pozik nago. Beharrezkoa da horrela

jarraitzea amaitu arte, gehiegi lasaitu barik.

—Denok gaude nekatuta, baina hau azkenean, ume bat erditzea bezala da, gogorra izaten da, baina gero ahaztu egiten da. Lana zenbat eta gogorragoa, emaitza hobea.

—Zer esango zenioke ikustera doan mondrauetarrari?

—Azkenean, niretzat musikaren helburua ondo pasatzea da. Ondo pasatu dezatela, nik uste dut ondo egiten badugu, dibertitu egingo direla. Horrela bada, espero dugu txalo batzuk joko dizkugutela.

—Argumentuaren pistarik?

—Umeak mendira doaz egunpasa, bakarrik eta libre. Batzuk edozer gauza egiten eta gauzak apurtzen hasten dira, eta besteek zuhaitzen defentsan irtengo dute. Eztabaida horretan ari direla, Sorgin Punky eta bere laguntzailak aterako dira harripetik. Umeak animalia bihurtu, mardirikazioak, aingeruak, maingarriak... agertuko dira. Eta hortik aurrera jakin nahi duenak, etorri egin beharko du ikustera.

● **“Umeen lana eta esfortzua ikaragarria izan da eta gauza asko ikasi dugu denok bidean”**

Koadrilek jai egitarau ofiziala boikotatuko dute

Arrasateko koadrila taldeak aurtengo Sanjuanetako jai egitarau ofiziala boikotatu egingo du. Urtero bezala, ekintza batzuk antolatzeko programa bat aurkeztu zioten koadrilek udaletxeari, baina hartarako aurrekontuaren erdia besterik ez zien eskaintzen. Desadostasun honen ondorioz, boikota erabaki dute koadrilek, ez dute ezer jasoko eta ez dute ezer egingo. "Txopoa udaletxekoek altxatu beharko dute, nahi badute", adierazi digute koadriletatik.

Koadriletakoek diotenez, kexu ugari izan dira jaiak behera doazela, giroa galtzen ari direla. Horregatik, aurten, 15 koadrilaren artean bildu zirenean, egitarau aberatsagoa eta osatuagoa egiten saiatu ziren. Kontzertu handi bat Gaztetxean, adibidez, edo txopoa jaso baino lehenago bazkari herrikoa, jende gehiago bildu zedin. Guztira, pentsatutakoak 1,6 milioi PTAKo aurrekontua zeukan, baina udalak erantzun zien



"Txopoa udaletxekoek jaso beharko dute" diote koadriletakoek.

850.000 emango zizkietela; hau da, iazkoa, prezio igoeraren portzentaia gehituta, iazko programa bera egin zezaten. "Programa guri ezer konstatatu barik egin dute", diote koadrilek, "aurrekoa segitu eta punto, eta aurrekoa kaka bat bazen, horrela ez ditugu sekula Sanjuanak jasoko".

14 koadrila dira talde honetan bildutakoak, eta Gaztetxeak ere bat egiten du eurekin. AEDko Gazte Mobida hasierako eztabaidetan egon zen, baina ondoren ez da ados azaldu boikotarekin. Udalaren eta koadrilen arteko eztabaida ez dutela ulertzen diote Gazte Mobidakoek, eta eurek

beren ekintza propioekin segituko dutela.

Koadrilak ere ez dira geldi egongo. Programa ofizialetik kanpo ibiliko dira, baina antolatuko dituzte ekintza batzuk, protesta zentzuarekin, dena den. "Askok baino hobeto pasatuko dugu, baina ez udaletxearen ikuspegitik".



ITURRIOTZ
JAIETAN
Girorik
jatorrena!
Tfnoa: 79 16 04



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iaruzko artikulua
Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

FAGOR 

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



HONETAN PENTSATZEN ARI BAZARA, ETA



GUSTATZEN BAZAIZU, ETORRI



ERA.

2 SOLAIRUTAN, DENETIK AURKITUKO DUZU:


• LEHENENGOAN:



• BIGARRENEAN:



JENDE



LAGUNDUKO DIZU BEHAR DUZUNA AUKERATZEN.

JAI ZORIONTSUAK PASAKO DITUZULAKOAN,



LORAMENDI KIROLAK

**Bainujantzietan
espezialistak**

NEREA

**JAI
ZORIONTSUAK!**

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tfnoa: 79 13 43



Errementari dantza: tradizio berria jaietarako

Luis Fernandez

Errementari Dantza ikuskizun berria izango da aurtengo Sanjuanetako nobedadeetako bat. Hurrengo urteetan berrikuntza ez, eta tradizio bihurtzadain da dantzaren sortzaileen asmoa, eta are gehiago, Arrasatekin kanpo ere errepika daiteke espektakulua.



Haritz Solupe eta Jose Ramon Vitoria, Arrasate Musikalekoak.



Arrasate Musikalen inguruan joan zen gorpuztuz ideia, baina musika elkarreaz gain, herriko hainbat taldek hartuko dute parte Errementari Dantzan: Lore Gazteak eta Arrostitz dantza taldeak, gaiteroak, txistulariak, albokariak, bertsolari eta koplariak, erraldoi eta kilikien konpartsa eta txalapartari eta toberak. Musika, dantza eta kantuak apropos sortu dira Dantza honetarako, eta horrez gain, herriaren sinbolo izango den 10 metro luzeko dragoi mugikor bat fabrikatu da.

Dragoi eta errementarien alegia abiapuntutzat hartuz, horrela eraiki da Dantzaren sinbologia. Dragoia garaitu zuten olagizonen istorioari buelta eman zaio nolabait, oraingo honetan errementariak ez dute dragoia hilgo,

Santa Barbarara joan, dragoia hartu eta jaietara ekarriko dute, lagun gisa, bere suaz San Juan jaien hasiera marka dezan.

Dragoi erraldoiarekin bat, hiri zaharrean zehar kalejira egingo dute lehenbizi ikuskizunean parte hartuko duten

ehun lagunek. Kalejiran, dantza egin eta koplak kantatuko dituzte. Ondoren, Herriko plazan bilduta, sua izotuko du dragoiak eta alkatearen agurra izango da (zortzikoa dantzatuko du Xabier Zubizarretak); ondoren ingurutxo dantzatuko da suaren inguruan,

neska-mutilak bereiz, eta azkenik polka batekin itxiko da dantza, heldu-helduan. Ikuskizuna 23 eta 26an ikusiko dugu.

HERRI TRADIZIOA

Arrasate Musikaleko Jose Ramon Vitoria egon da Errementari Dantza prestatzeko ahalegin hau koordinatzen. "Lana eduki du, gauza asko", komentatu digu Vitoriak. "Musika egitea, koreografia, bertsoak... Denak jarri ginen harremanetan eta jendeak oso ondo hartu du". Kolaborazio zabal honek badu aurrekari bat: "Santamasetako dantzakantua ere horrela hasi genuen, denok bildu eta Arrasateko jaietarako tradizio bat sortu nahian", diosku Vitoriak.

Santamasetakoa bada, da goeneko, tradizio txiki bat, beraz hurrengo urratsean pentsatzen hasi zen Vitoria. Santamasetako neguko solstizioarekin lotuta dauden bezala, Sanjuanak udakoarekin daude. Lehenbizi, tradizioetan arakatzeko hasi zen. "Aspaldi baze goen Sanjuanetako zortziko bat, zerbait gogoratzen dute batzuek eta jantziaren bat agertu da baserriaren batean, baina galduta dago". Horregatik ideia hasieratik berri-berria izatea izan da aukera, elemen-

Errementari Dantzako koplak

Errementari jauna klunka eta klunka argi mailukiakin begirik ez dauka

Gure auspoa oso berotzen ez bada etxera perratuta bueltatuko gara

Suak, lana ta jai martxan jartzen ditubata itxungi da ta bestea ixotu

Herensugea sua poliki emunik behin erre ginen eta berriz erre barik

Egilea: Jon Iñaki Izarzelai



Dragoi erraldoia astelehenean ekarri zuten Debatik Arrasatera.

to nagusi baten inguruan: sua (Sanjuanen sinboloa, errementarien lan-tresna, dragoiaren arma).

Aurrera begira, tradizio bihur dadin da Errementari Dantza asmatu dutenen asmoa. Are gehiago, "ez dugu nahi dantzariak egiteko dantza izan dadin; herriak egin behar du dantza, eta errementariak herriaren ordezkariak dira", dio Vitoriak.

Bestetik, aipagarria da ikuskizuna herritik kanpo errepikatze asmoa dagoela. Izan ere, udazkeneko Gasteizko Nazioarteko Folklore Jaialdian kalez kale ibiliko da Gasteizen Errementari Dantza. Antolatzaileek liburuxka bat ere kaleratuko dute, dantzaren gorabeherak, dragoiaren alegia eta Arrasateko burdinola eta errementarien historia bilduz.

10 METROKO DRAGOIA

Errementari Dantzako elementu nagusietako bat dragoi edo herensugea da. Arrasate Musikaleko Haritz Solupe 18 urteko tronboi-jole eta

injinerutza ikasle arrasatearrak diseinatu du dragoia, eta Debako Arte-eskolan eraiki dute, bere planoen arabera.

Haritzek egurrezko maketa eta modeloak egiteko ohitura du aspalditik, eta Jose Ramon Vitoriak dragoiarena aipatu zuenean, tronboi-jole gazteak bere irudiak aurkeztu

zizkion. Planoez gain, egurrezko maketatxo bat ere egin zuten proiektua udaletxean aurkezteko, "baina udaletxera eroan, eta han apurtu zen, politikoen eskuetan", Haritzek kontatzen digunez.

Apurtu baino lehenago, udaletxean proiektua onetsi zuten behintzat, eta 600.000

PTA inguruko subentzioa egon zen Errementari Dantzarako. Diru guzti hori dragoia fabrikatzeko izan da. Aurten ezin izan dute soinekorik edo jantzi aproposik egin (baina kanpotik ekarritako jantziekin sorpresatxoaren bat izango dela esan digu Vitoriak). Partaide guztiek, esan gabe doa, musutruk egin dute lan. "Neuk behintzat dirua ipini egin dut, neure politzikotik", dio Haritzek.

Dragoiak hiru bat metro zabal dauzka, hamar luze. "Asko txikitu behar izan dugu azkenean, bestela ez zegoen Arte-eskolatik ateratzeko modurik", dio Haritzek. Piztia hiru lagunek eroango dute barruko estrukturan sartuta, eta Haritzek nahi du izan horrietako bat, baina agian bandan tronboi bat faltako da eta...

Dragoiaren sekretuetako bat ahotik sua botatzeko sistema da. Deban frogak egiten izan ziren, eta ia lokala erre zuten, herensugeak hiru metroraino jauritzen baititu garrak. Beraz, San Juan sua izotzerakoan, koplak polito kantatu beharko zaio, badaezpada: Herensugea sua / poliki emunik / behin erre ginen eta / berriz erre barik.

Alkatea dantzari

Errementari Dantzak sortuko duen ohituretako bat alkatearen dantza izango da. Herriko alkateak, Xabier Zubizarretak, irekiko ditu jaiak sua izotzearekin bat, eta aurten egiten bada... hurrengoetan ere bai!

Atxabaltarra izanik, Zubizarretak dantzatzeko ohitura badaukala dio, kintoen dantzan ibili baitzen bere garaian, bere herriko mutil gehienak bezala. Orduan, banakoa, aurrezkoa eta gaur egiten ez den desafioa egin zituen Zubizarretak, eta zerbait geratuko zitzaion. Dena den, duela aste batzuk hasi zen entseuetan oraingoa prestatzen, dantza bereziki sortua denez gero. Dantzatzeko lotsarik ez duela dio alkateak. "Lotsa galduta daukat, baina lotsa baino gehiago ardura da". Dena den, ez dabil larriegi. "Helburua ez da demostraziorik egitea", komentatu digu.

Dantza hau tradizio bihurtzen bada, alkate aldaketa iristen denean, berriak ere gauza bera egin beharko du, lotsagarri geratzerik gura ez badu. Horregatik, dio alkateak, "ondoegi egitea ere ez da komeni..."





ARRASATEKO UDALA

Joskintza industrial ikastaroa

Arrasateko Udalak 1993ko Enplegurako Prestakuntza barruan Joskintza Industrialeko ikastaro bat antolatu nahi du, honako ezaugarriekin:

Edukinak:

- Joskintza industrial eremuan kate-produkzioarako prestakuntza praktikoa.
- Enpresa-gestio eta antolakuntza kooperatiboko oinarritzko ezagupenak.

Betebeharrak:

- Langabezian egotea.
- Joskintza arloan enpresa bat eratzeko gertu egotea.
- Ikastarora joateko konpromezua.

Iraupena:

1993ko irailaren 1etik maiatzaren 31 arte.

Ordutegia:

Asteleheneretik ostiralera, bi fasetan:

1. fasean (3 hilabete): 8etatik 12etara edo 14etatik 18etara.
2. fasean (6 hilabete): 8etatik 13etara eta 15etatik 18etara.

Informazio gehiago, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan.

San Juanak, kirol giroan

Urtero legez, aurten ere San Juan jaien egitarauaren barruan protagonismo nabarmena izango du kirolak. Batetik pilota, bestetik txirrindularitza, eta hirugarrenik nobedade moduan antolatuko den ardi txakurren txapelketa azpimarratu behar.

Pilotarien txanda

Jai egitarau zabalaren barruan, bai hai eta bai bukatzeko pilota partiduak daude iragarrita.

Lehenik eta behin, larunbat honetan, hilak 19, Iturripeko frontoian XIV. San Juan Pilota txapelketaren finalak jokatu dira. Partidu ugari egongo dira aukeran goizeko 10.30etatik, txapelketa alebin, infantil, kadete eta jubenil mailatan banatu baita.

Ezin ahaztu, bestalde, urtero letxe San Juan hirugarrenegoz Gregorio Uranga, *Kirru* enpresario ospetsuaren ardurapean antolatuko diren desafioak.

Zaldibarreko kantxan, hialaren 26an eta 6.30etatik aurrera, telonero bezala Isturiz (Abarzuzako lehoia) eta Txispasek, Txikito de Veneras eta Txikuriren kontra jokatuko dute.

Estelarrean, berriz, Urria eta Irazola aurrez-aurre, zaleak gustora uzteko moduko neurketa.



Hialren 26an, Urria eta Irazola aurrez-aurre Zaldibarren.



Txirrindulariak ere protagonista San Juanetan.

Txirrindularien ordua

Txirrindulariek eta kirol honen zaleak ere bi zita garrantzitsu izango dituzte aurtengo jai-programaren barruan.

Lehenengoa larunbat honetan bertan, ekainak 19. Arratsaldeko 4.30etan hasita,

herriko neska-mutikoentzako proba antolatuko da. Hiru maila bereiztuko dituzte, benjaminak, alebinak eta infantilak. Lasterketa herriko kaleetan zehar burutuko da, eta edozeinek har dezake parte.

Arrasateko Txirrindulari Taldearen eskutik, bestalde,

goi mailako proba bat ere jarraitu ahal izango dugu herriko festetan. San Juan bigarrenegoz izango da hori, ekainaren 25ean. Ostiral goizeko 9.30etan hasita, 1. eta 2. mailako afizionatuentzako proba antolatuko da, LV. San Juan Saria. Euskal Herri mailako txirrindulari gazte onenak ikusteko aukera, beraz, Arrasate eta Gatzagain artean prestatutako zirkuitoan lehiatzen.

Nobedadea, ardi txakurrak

Aurten, egitarauaren barruan nobedade ederra ere aurkitzen dugu: domeka honetan, ekainaren 20an hain zuzen: herrian antolatuko den Ardi Txakur Txapelketari buruz ari gara.

Caja Laboraleko zelaian izango da hori, goizeko 11etatik aurrera. Iniziatiba txalagarria, Arrasaten erdi galduta dagoen proba tradizional hau berreskuratzeko.

Herri Kirolak falta

Akaso, eta aurreko urteetako jai egitarauarekin konparatuz gero, aurtengoan herri kirolak somatzen dira faltan. Azken urteotan Zaldibarren aizkolari eta harrijasotzaileek euren lekua eduki badute ere, oraingo honetan eta zaleen zoritxarrerako, atsedena hartuko dute. Lastima.



SASIAIN

Sport

Zaraia, 7 Tfnoa: 79 77 63 ARETXABAETA

BIZIKLETA MODELO GUZTIAK!!

- Nazionalak eta inportaziokoak
- Mountain-bike
- Errepiderakoak
- Paseokoak
- Neska eta mutikoentzat
- Zikloestatiak



Kiroletako modako zure dendak
agurtu egiten zaitu jai hauetan

DRAFT-CENTER

Otalora, 21 Tfnoa: 79 48 31 ARRASATE

JOSE MARI SALEGI

KARTEGIA URDAITEGIA

Olarte, 20 Tfnoa: 79 45 55 ARRASATE

AKADEMIA

BASTIDA

INEMek homologatutako ikastetxea

Ferrerias, 44

Arrasate

Tfnoa: 79 32 16

1993ko UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

GESTIO-INFORMATIKA
PROGRAMAZIO-INFORMATIKA
KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ

TAKIGRAFIA
INJINERUTZA TEKNIKOA
KLASE BEREIZGARRIAK

HASIERA UZTAILAREN 1ean, AMAIERA UZTAILAREN 28an

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

● *Jose Ramon Perez*

Dantza berriaren pausoak


Lore Gazteak dantza taldeko partaidea dugu Jose Ramon. Aurtengo San Juanetako jaie-tan dragoiaren ikuskizunari lagunduko dion dantzaren, errementari dantzaren pausua, konpasak, koordinatu ditu.

— Nola asmatu duzue errementari dantza?

— Ez da bat ere erraza izan. Dragoiari lagunduko dion dantzaren musika, soinua egin eta gero, guri eman ziguten errementari dantzaren pausua asmatzeko. Musika entzun eta entzun eta pausu desberdinak entsaiatu eta gero, azkenean adostasun batera heldu ginen. Lore Gazteak eta Arroztaitz taldeko dantzariak ibili gara horretan, baina ordu batzuk pasatu ditugu azkenengo dantza definitibora iritsi arte.

— Nola definituko zenituzke errementari dantzaren pausua?

— Nik esango nuke nahiko errazak eta sinpleak direla. Santamasetako dantzarekin egiten den bezala, dantzarietz gain, edonork ikas dezake. Hala ere, hurrengo urteetan tradizio bihurtuko da eta maila horretan beharrezkoa da herriaren laguntasuna eta parte hartzea. Horretaz gain, ez da dantza luzea, guztira 10-15 minutu edo egongo gara dantzan. Dragoiaren ikuskizunarekin beti joango dira dantzari konkretu batzuk, baina dantza hori ikas-teko interesa duenak ere ikasi ahal izango du. 23an eta 26an Gazteluondotik dragoia irten eta Herriko Plazarainoko ibilbidean, dantzariak, nolabait jantzi egingo dugu ikus-



kizuna. Plazara heldu eta gero, "Ingurutxo" eta "Polka" dantzatzeko ditugu. Ikusleak ia ia ez ditu desberdindu bi dantza hauek, behar bada, musika zertxobait aldatu egingo delako.

— Zenbat dantzari hartuko duzue parte?


— Beno, esan behar da dantzarietz gain, beste ekipa handi bat joango dela dragoiaren inguruan. 50 bat dantzari joango gara, baina horretaz gain, gaiteroak, txistu-

lariak, albokolariak, bertsolari eta koplariak, erraldoi eta kilikien konpartsa eta txalpartari eta toberak. Guztira 30 bat musiko eta 20 konpartsoak. Arrasate Musikaleko metal taldearen parte hartzea ere izango da: tinbala, tronboia...

— Jantzi bereziak prestatu dituzue dantza horretarako?

— Hasiera haseratik, gure asmoa errementari dantza dantzatzeko jantzi egokiak lortzea zen, baina ezinezkoa izan da, batez ere, hainbeste jenderentzako trajeak egiteak nahiko aurrekontu altua eskatzen duelako. Horregatik, aurtengo behintzat, dauzkagun jantziekin irtengo dugu eta hurrengo urteetarako traje bereziak lortzea espero dugu.

● **"Errementari dantzaren pausua nahiko errazak eta sinpleak dira, interesa duenak erraz ikas dezake"**



ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak, beirina eta kristalak. Akzesorioak.

Olarte kalea, 47behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

AEDko tonbola, sariak banatzeko gertu

1989. urteko San Juanetan jarri zen lehendabizi AEDko tonbola. Urtebete jarri gabe egon eta gero, 91an berriz jarri zuten eta aurten ere jartzeko asmotan dabilta. San Juanetako lau egunetan egongo da zabalik eta helbururik inportanteena AEDren presentzia kaleratzea izango da. "Pegatinak egiten duten bezala, aurten tonbola honen bidez, AEDren presentzia jaieran ikustea nahi dugu, bide batez gure helburuak kaleko jendeari hurbiltzea. Hori bai, argi eta garbi utzi nahi dugu tonbola honen helburua ez dela dirua irabaztea, euskararen erabilpena bultzatzea baizik" esaten digu antolatzaile batek. Horretaz gain, orain arte barraka munduko jende gehiena erdaraz mugitu izan denez, mundu hori piska bat errekuperatu nahi dute AEDkoek. Arratsaldeko betatik goizalderarte egongo da zabalik eta funtzionamendua beste edozein tonbolaren antzerakoa izango da. Bole-



AEDko tonbola barraka ondoan jarriko da.


toak bertan salduko dira eta ondoren zozketa baten bidez sari desberdinak banatuko dira. Boleto bakoitzak 100 PTA balioko du eta sei erosiz gero, 500 PTA bakarrik ordaindu beharko dira. Sari ugari banatuko dira egunean, horien artean: metxeroak, bola jokuak, zeramikazko irudiak,

abanikoak, pelutxezko animalia handiak, irrati kasetak, sukaldeko baxerak... Bestalde, nahiz eta eguneroko zozketan ezer irabazi ez, boletto bakoitzak zenbakia izango duenez, azkenengo egunean egingo den zozketan sartuko dira guztiak. Azken zozketa honetan mendiko bizikleta,

kazuela jokua, kanping denda handia eta baxera desberdinak banatuko dira.

AEDko talde desberdinek hartuko dute parte tonbola honetan txanda desberdinetan: Gazte Mobidak eta baita Ekin emakume taldeak ere. Baina laguntzeko prest dagoena hurbildu dadila AEDra.

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispera kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41

ARRASATE

Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 \ 77 07 94

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,

Tfnoa: 79 31 99

**PUB
HAIZEA**



BELAMENDI KIROLAK

Jai alaiak izan!

Gipuzkoa Etorbidea, 37

Tfnoa: 77 13 41

ARRASATE



RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!

Iturriotz kalea. ARRASATE

M
E
C
A



R
A
P
I
D

93-94 ikasturtearen hasiera

- **IKUSENTZUTEKO MEKANOGRAFIA**
200 p x m 28 ordutan. Ikastaro garantiztua.
- **INFORMATIKA**
Udako ikastaroa. Uztailean
30 urdu. 2.30 ordu egunean.
- **TAKIGRAFIA**
*0-120 hitz/minutuko
Otalora Lizentziatua, 3 1. C Tfnoa: 79 68 53 ARRASATE

ARIMA
ZURI

Degustazioa
Lagun eta bezero
guztiei zorionak!

CTEGAS

ARRASATE

Tfnoa: 77 00 77

REPSOLen laguntzailea

Azkar eta ondo

GASA eta BEROKUNTZA

Instalaketa onenak

2.000 instalazio baino gehiago eginak.

Auzolandegiak Iparraldean KANBON (LAPURDIN)


- Bigarren zikloko ikasketetan izan duen ikasle gorakadak bere instalakuntzak anpliatzera bultzatu du SEASKAK.
- Edozein lan egiten dakien jendea behar da.
- Goizez lana egingo litzateke 8etatik 12.30etara eta arratsaldean iparraldea ezagutuko litzateke.
- 3 txanda antolatu dira:
uztailaren 4etik 18ra
uztailaren 18tik abuztuaren 1era
abuztuaren 1etik 15era



- Matrikularen prezioa 10.000 PTAKoa izango da.
SEASKAri lagundu, Iparraldea ezagutu eta lan giro jator eta euskaldun baten 15 egun igaro gura badituzu, zatoz berandu baino lehen AED elkartera edo dei egizu **77 12 28 / 79 54 46** telefonoetara.



Auzolandegi hauek **AEDko Gazte Mobidak** eta **SEASKA** antolatzen dituzte **Arrasateko Udaleko Euskara eta Gazteria Batzordeen** laguntzarekin eta **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** kolaborazioarekin.



*Aurtengo ikasturtea amaitu da.
Mondrauetarrok, ondo pasau San
Juanak eta udako oporrak.*

San Frantzisko Xabier Ikastola


BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA


Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotsik, ez berorik, ez
soinurik...

Z E R N A H I A G O ?

Manuel Campos**“La Esquisita”ko txurreroa**

- **Nori gustatzen zaizkio txurroak?** Adin guztietako jendeari, baina umeei batez ere.
- **Askok gizenzen dute?** Beno, beste edozer gauzak bezala, gaur denak gizenzen du.
- **Zenbat herritatik pasatzen zara urtean?** 25 herritatik gutxigorabehera.
- **Udan ala neguan saltzen da gehiago?** Udan ordu gehiagoz egiten dugu lan, baina proportzioan, neguan saltzen da gehiago.
- **Nora joango zinateke oporretan?** Diruaren arabera, baina eukiz gero, Egiptora.
- **100 PTAn zenbat txurro sartzen dira?** 5 edo 6, segun.
- **Txurrero denok errezeta bera erabiltzen duzue?** Ez dakit, guk masa dena eskuz egiten dugu eta frijitzeko oliba olioia erabiltzen dugu.
- **San Juanak ala Santamasak?** Niri pertsonalki Santamasak gustatzen zaizkit gehiago.
- **Nondik etorri zarete?** Bergaratik.
- **HIESari beldurrik?** Ez, zergatik?
- **Rocka gustatzen?** Rocka, ez da bereziki nire gustokoa.
- **Euskal liburu asko irakurtzen duzu?** Gero eta gutxiago. Etxean asko ditut berri berri, irakurri gabe, baina ez dut denborarik.
- **Korbata ala pajarita?** Korbata.
- **Lotia zara?** Ez, udan, adibidez, ordu pare bat lo egin ezker, nahiko.
- **Munduko gauzak etxeok baino inportanteagoak dira?** Ez, etxeok beti du lehentasuna.
- **Jubilatuak ondo bizi direla uste duzu?** Bai, baina hobeto bizi zitezkeen.
- **Zoriontsu izateko errezeta?** Norbere buruarekin gustora sentitzea.

BERTSOAK**SAN JUANAK**

1
 laz San Juan aurten ere bai,
 akabo da, agur pena.
 Herensugea etorriko da
 gure kaletan barrena
 eta entzun dut bere ahotik
 hasiko dela jai dena
 sutara bota behar dutela
 harek pizten ez duena.

2
 Entzun dudanez jaietan ere
 dirua dator beherantza
 krisialdiak egin al dio
 umoreari bengantza?
 Mondrauetarrok badaukagu bai
 indarra ta esperantza
 diruak jai jai esanda ere
 alai egiteko dantza


ION IÑAKI IZARZELAIA

ileapaindegiak
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZU

Tfnoa: 79 37 88 ARRASATE

ZER NAHIAGO?

Elisabeth Palma Tanborradako zuzendaria



- Ordu asko eman duzu praktikatzen? Ez, entsaiuetan bakarrik. Abestiak jakin ezkerro, ez da hain zaila.
- Nolakoak dira eramango dituzun jantziak? Frakak, txaketa urdina eta gorria eta lumadun gorroa.
- Tanborreroek ondo ikasi dute jotzen? Batzuk bai baina beste batzuk...
- Zer da jaietan gehien gustatzen zaizuna? Tanborrada, noski.
- Zer esaten dizute lagunek? Oraindik ezer ere ez, tanborradan ikusi arte.
- Zer moduz ikasketak? Ondo, baina matematika ez hain ondo.
- Zer motatako musika gustatzen zaizu? Denetatik entzuten dut.
- Zer gustatzen zaizu irakurtzea? Liburuak.
- Tanborradako pertsonarik politena? Zaldian joaten dena edo zuzendaria.
- Normalean zenbat ordu egiten dituzu lo? Ez dakit, 11 edo.
- Kolore bat? Urdina.
- Platelean jarritako guztia jaten duzu? Ez, lentejak ez behintzat.
- Nori diozu enbidia? Ez dakit, zaldian joango denari edo.
- Ordenagailua erabiltzen badakizu? Ez, ikasten nabil.
- Amets bat? Artista izatea.
- Baduzu lagunik tanborradan? Bai, jotzen eta zuzentzen ere bai.
- Gurasoek animatu egiten zaituzte? Bai, pozik daude tanborradan irtengo dudalako.
- Zenbat aldiz ibili zara San Juanetako tanborradan? Laugarren urtea da, baina zuzentzen lehena.

BERTSOAK

JAIK ETA DROGAK

1
Oso kaltegarria dugu tabakoa gainera sortzen digu kriston bizioa ta eragiten digu ezbehar mordoa birikak erre eta hustu poltsikoa.

2
Whisky eta txanpaina dira edariak hala ere ez dira komenigarriak alkoholez beterik omen daude biak egin kirola eta ez mozkorkeriak.

3
Drogekin dugu orain arazo larria drogatzen hasi zaigu gaurko gazteria jeringilaz beterik daukagu herria asma beharko dugu irtenbide hobia.

JOSU ARROIABE



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

**93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA
IREKITA DAGO !**

Hurbil zaitetz gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1993-94 ikasterterako aurreinskripzio-epaia zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57

LENIZ

garagardotegia

San Juan jai
zoriontsuak!Iturriotz, 8
Tfnoa: 79 22 29
ARRASATEGaraiako perretxikoak
urte guztian zehar!• Eguneko
menua• Astebu-
rueetan menu
berezia• Paregabeko
karta**RUTH GATZAGA**

Olarre kantoia. Tfnoa: 79 59 57

**AMAGARA****ESTETIKA
ZENTROA**Erdiko kale, 54
etxabea
ARRASATE
Tfnoa: 79 09 09*Paz Mancenas*
Bitxitegia

Iturriotz, 7 bis. Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

**VIAJES**
B I D A I A K**EROSKI****URRUNAGO IRISTEN GARA**

Maisu Arano, 6 Tfnoa: 79 99 00 ARRASATE


PinpirinLentzeria, Mertzeria, Bainurako
eta umeentzako erropak

Uribarri etor. 1. Tfnoa: 79 88 51

MERKEKILO
Oihalak
pisuraFerrerias, 5
Tfnoa: 79 15 00
ARRASATE• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrakArrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76**ALMACENES**
ARRASATE**Dena dira abantailak**
ALMACENES
ARRASATEn
erosterakoan!Kataide Industrialdea, 3.
Tfnoa: 77 13 52 Faxa: 77 13 13
ARRASATE



ATB eta Sebero Altube Plaza berrira mondrauetarren topaleku.

San Juanak

Mondragoeko telebisiñuen

Eguastenetik zapature, egunero Seberon

Tira bada, iritsi dira azkenean 93ko San Juanak Arrasatera. Bat, bi, hiru, lau... ez, bost egun falta dira. Herria dantzan, eta urtero bezala ATBkook lanean arituko gara festa giro hori isladatu asmoz.

Seberotik, zuzenean

Hasteko, jaiak iraun bitartean gure ohizko lantokia aldatu eta Sebero Altube plazan egokituko dugu. Jada herriko San Juanetan ohizko bihurtu den aldaketa!

Apustu horren arrazoia, hasiera-hasieratik, telebistakoon lana herritarrengana hurbiltzea izan da, eta bide horretan jarraitzen dugu, egun horietan zehar, etxean egon beharrean mondragoetarrei Seberora jeitsi eta gure lana zuzenean ikusteko aukera eskaini nahian.

23tik 26ra, egunero

Astelehen eta asteartean

gure emisioak normal-normal burutuko ditugu, Eguerdiko Albisteak, Berriak, Mondrasport eta Bakarka saioekin.

Saltsa-maltsa asteazkenean hasiko da, San Juanetako festa egitarauarekin batera, eta larunbatera bitartean egingo ditugu emisio berriak, egunero.

12.30etan, Magazina

Programa espezial horiek bi ataletan banatuko ditugu.

Alde batetik, eguerdiko txanda 12.30etan hasiko da, eta Magazinarekin formula erabiliko dugu: estudioko gonbidatuekin egindako elkarrizketak, eta herriko jai-giroa isladatuko duten bideoak tarletakuz.

Magazinak ordu t'erdiko iraupena izango du, eta egunero aurkezle-bikote berri baten ardurapean gauzatuko dugu. Guztira, beraz, zortzi mondrauetar debutari: Oier

Sarasua eta Maider Osa, Andoni Orobengoa eta Naraia Gorroño, Iban Arana eta Sofia Nafarrate eta Maximo Letona eta Karmele Iparragirre.

6.30etan, ATBketan

Arratsaldeko txandan, berriaz, Jon Etxeberria, Iban Lizarralde eta batez ere, hurrei zuzendutako ATBketan saioa izango dira San Juan *parri-llan* protagonista.

Asteazkenetik ostiralera bitartean izango da hori, larunbatean goizez bakarrik emitituko baitugu.

Ordubeteko iraupena edukiko du ATBketanek, umore ezinhobean eta proba berriekin datorren saioa.

Arratsaldean, 7.30etan, lehiaketa bukatu bezain laster, eta festa-giroa sakondu asmoz, Seberotik bertatik aktuazio ezberdinak eskainiko dizkizuegu: Trikitilariak, bertsolariak, e.a.

PROGRAMAZIOA



21 Astelehena

1.30etan
Eguerdiko Berriak
8,8.30,9etan

Berriak

9.30etan

Mondra Sport

10.00etan
Asteko Zinea:
"Mad Max"

22 Asteartea

1.30etan
Eguerdiko Berriak
1.35etan

Mondra Sport

8,8.30,9etan

Berriak

9.30etan

Bakarka: Maddalen Iriarte.

10.00etan
Asteko Zinea:
"Mad Max"

23 Asteazkena

12.30etan
San Juanetako Magazina
Seberotik
6.30etan
ATBketan

24 Osteguna

12.30etan
San Juanetako Magazina
Seberotik
6.30etan
ATBketan

25 Ostirala


12.30etan
San Juanetako Magazina
Seberotik
6.30etan
ATBketan

26 Larunbata

12.30etan
San Juanetako Magazina

a, eme... sukaldeak

Zerkaosteta, 3 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE



MOBILIARIO DE COCINA Y BAÑO

● Iñigo Arregi

Hiru urteko margolanei errepasoa

Iñigo Arregi, 38 urteko margolari arrasatearrak Harresiko aretoan erakusketa du irekita jaiak pasa arte. Azken hiru urteetan egin duen lanaren obra adierazgarrienak bildu ditu, pinturak, marrazki batzuk eta eskulturara pixkat hurbiltzen diren taulak ere bai.

— Nola definituko zenuke hiru urte hauetako lana?

— Definitze hori oso zaila da. Ez dakit, azkenean ez dakit nola definitu. Influentzia asko dauzkatz eta estilo honetan ez da sartzen kontzeptu bakarra.

— Eboluziorik egon da zure margoetan?

— Noski, lehen estetika bat neukan, eboluzioa gertatu da kontzeptu bezala eta estetika bezala. Lehen forma boroibil eta argitsuak egiten nituen, eta orain deskonposaketak geometrikoki egiten ditut, marrekin eta planoekin. Lehen, nire artearen kontzeptuan, politika mailak zerikusitua handia zeukan. Orain konturatu naiz batzuetan politika doala alda batetik eta artea beste aldetik. Batzuetan elkar-


tzen dira eta beste batzuetan separatu, leku desberdinetan joaten dira. Nire kontzeptua gaur egun zabalagoa da eta uste dut arteak ez daukala, ez dakit...

— ...ez daukala konpromesurik eduki beharrik?

— Bai. Bai eta ez. Azkenean, artea bera konpromesua da. Baina esan gura dut, politikan egiten direla talde konkretu batzuk, eta ideologia bezala oso bide zuzenak izaten dira. Aldiz, artea joaten da beste bide batetik, batzuetan inguratzen da eta beste batzuetan ez.

— Udaletxean dituzun koadroek ez dute zerikusirik erakusketakoekin, ezta?

— Ez, ez dute zerikusirik. Hori lan konkretu bat izan zen, eta figuratiboa egin nuen, nola leku publiko batean dauden, jendeak hobeto ulertu ditzan. Alde batetik dago nire lana, pertsonala, erakusketa honetan erakusten dudana; eta beste bat da udaletxeko lana, enkarguzko moduko gauza bat esango nuke nik, gauza desberdina.



— Guggenheim-enganako mesfidantzarik?

— Hor gertatzen dena da ez dagoela informazio handirik. Orduan inork ez dakigu konkretuki zer egin behar duten. Espektatiba handia dago, baina gaineratik ikusita, eta entzun diren gauzekin, nik uste dut definizio onena Oteizarena dela. Berak esaten du hori Euskal-Disney izan behar dela, eta oso ondo definitzen du horren asuntua. Uste dut Euskal Gobernuak sakrifikatu egin duela hemengo kultura, hori esaterik baldin badago edo behintzat hemen egiten den lana, eta hengo zabaldu eta egin beharrean gauza euskaldun bat, apostatu dute kanpotik ekar-tearren gauza haundiki bat, kristoren montajea. Esaten dute horrek arte munduan inportantzia handia emango diola Euskadiri, eta nik duda

handia daukat, ez dut uste hala izango denik.

— Euskal artearen egoera nola ikusten duzu?

— Oso interesantea. Orain lan asko egiten da, pintore asko daude, lan bereziak. Oso ondo ikusten dut. Gainera dibertsifikatu egin da gaur egun lana, nola informazio handia daukagun leku guztietatik. Estetika mailan egiten dira gauza oso abangoardistak, eta beste batzuk oso klasikoak eta betikoak izan direnak. Gaur egun posiblea da batek oso gauza abangoardista egitea New York-en eta gauza bera egitea beste batek Gartzagan.

— Brikolaje denda batean egiten duzu lan. Biziko zinateke artetik?

— Artetik bizitzea oso zaila da. Nire esperientziarekin esango nuke, bakarrik biziko banintz, posible izango litzatekeela, baina familia eduki ezker, gizartea dagoen bezala, eduki behar duzula kotxea, etxea... Gastua sortzen da familia baten barruan eta ez da posible.

● **“Guggenheim-en definizio onena Oteizarena da, berak esaten du hori Euskal-Disney izan behar dela”**

Ehune

Apainketa

Etxe txukuna

Txoko kuttuna

Otalaora, 21
Tfnoa: 77 11 48
ARRASASTE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



PAZI-OLA S.A.

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Parques
y Jardines

**Parke eta lorategien
sorkuntza.**

**Larazaintzako
mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza
hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



ARRASATEKO UDALA

1993 ENPLEGUAREN ESKAINTZA PUBLIKOA

a) Lanpostu finkoak:

- Administrari laguntzailea
- Amaia Antzokiko atezain-arduraduna
- Prebentzio eta Gizarteratzeko teknikaria
- Hirigintza eta Obretako teknikaria

b) Aldi baterako kontratazioak:

- Udaltzain laguntzailea (2)
- Administrari laguntzailea
- Gazteen informatzailea
- Euskara teknikaria
- Emakumeen berdintasunerako agentea
- Ingurugiro Eskolarako irakaslea

Oinarri-arauak eta izenak ematea: Horiei buruzko oinarri-arauak, eta izenak emateko inprimakiak, Udaletxean jaso daitezke. Uztailaren 5ean, eguerdiko ordubatean amaituko da eskabideak aurkezteko epea.

Arrasaten, 1993ko ekainaren 15ean
Alkatea



ARRASATEKO UDALA

1993 EKITALDIKO "ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA" (Diputazioaren laguntzaz)

Diputazioak deitutako 1993ko Enplegua Sustatzeko Programaren barruan, 6 hilabeteko iraupeneko kontratu hauek egingo ditu Arrasateko Udalak:

- Udal irratirako, teknikariak 2
- Euskaltegian liburutegia antolatzeako, teknikaria 1
- Santa Barbara parkerako, lorazain-begiralea 1
- Uretako lantaldean aritzeko, iturgina 1
- Mantenimendu lantaldean aritzeko, galdaragina 1
- Arkitektoa 1
- Jakinarazlea 1
- Museo Industrial baten proiektua egiteko, teknikaria 1

Hautaketa probetan parte hartu nahi duten kandidatoak, INEMen inskribatu behar dira.

Arrasaten, 1993ko ekainaren 9an
Alkatea



rrasaten San Juanetan talborrada egin zen lehen urteko erretratua da hau, 1964koa. Urte hartan, ikastetxe ezberdinetako neskatilak hartu zituzten tanborrada horretan damagisa karrozan joateko, eta hamabi-hamairu urteko neskatila hauek joan ziren karrozan, Asunción eta La Merced ikastetxeetatik eta Garibaiko eta Zigarrolako eskola nazionaletatik:

Ezkerretik hasitan zutik, **Arantza Arregi, Txaro Velez de Mendizabal, Mari Karmen Lopez de Goikoetxea, Purita Mentxaka, Isabel Azkoaga "Sissi"**, alkatearen alaba eta erregina jantzita joan zena, **Lutxi Uranga, Arantza Martinez, Tere Gallastegi** eta ezkinan, Maria Asun Arin Iñarra On Joxe Luis Iñarraren iloba. Makurtuta, ezkerrean **Nerea Alzola** eta **Lourdes Ibabe** eta esku-

man **Tere Egidazu** eta **Itziar Sagasta**.

Neskatilen atzean daudenak, **Juan Manuel Azkoaga**, alkatea eta bere emaztea, **Mari Carmen Quincoces** dira. Euren ondoan **Pablo Garai**, Udalpe elkartekoa, orduan SUDC ez zegoenez, elkarte horrek antolatzen zuen eta tanborrada. Argazkiaren ertz ertzean **Jesus Mari Mar-kaide**, dantzari jantzita.



Mondeo

M MUGARRI



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDAK
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZU.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

*Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!*

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38



San Andresen...

MESON MANOLO

Jai zoriontsuak izan!



KULTURA FISIKO ZENTRUA

- Karatea
- Aerobic-a
- Mantenimendu gimnasia
- Muskulazioa
- Sauna
- Solarium-a
- Squash-a
- Masaia

Kontzesiño kalea, z/g
Tfnoa: 79 97 31
ARRASATE



IKASTAROAK

Osasun laguntzailea
Psikiatria laguntzailea
Puerikultura
%90ak azterketak gainditu



IKASTAROAK

Pelukeria eta estetika
F.P. 1 Titulu Ofiziala

General Loma 4-3. GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 33 99

DAGLAS Bideo Kluba



*Aukera berriak!
Bideojokuak alokatzen dira!*

Otalora, 25 etxabea ARRASATE Tfnoa: 79 78 19

MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

**ASEGURU-ARTEKARIA
ARRISKU GERENTEA**

HELBIDE BERRIA:

Erdiko kale, 4 etxabea
Tfnoa: 77 13 09 ARRASATE



L

au-bideko etxe kantoia garai baten San Juanetan zezen plaza bihurtzen zen, eta bertan jaregiten zieten bigantxei edo sokamuturrari. Erretratu hau ez da hain zaharra ere, ordurako Grupo San Juaneko etxeak ere eginda zeuden eta, eta Caja de Ahorrosaren bulegoa

izkina horretan jarri berri.

Zezenari aurre egiten ari direnak, ezkerretik eskumara, **Eugenio Gallastegi**, **Inazio Isazelaia**, **Jose Ramon Ozaeta**, ezezaguna, **Imanol Berezibar**, **Alberto Abasolo**, ezezaguna, **Juan Jose Etxabe**, **Antton**

Azurmendi "Paparbaltz", **Iñaki Etxabe**, Kanpazarko tabernan Guardia Zibilek hil zutena, **Santiago Garzia**, ezezaguna, eta leihora igota **Felix Azula**. Goiko balkoian begira dagoen emakumea **Franziska Uriarte** da, Askasibar baserrikoa.

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

Bodisca s.l.

Zeramikako pabimentu
eta gaineztaldurak

Otalora z/g. Zarugalde, 3
Tfnoa: 79 65 25
ARRASATE

GAU TXORI
taberna

Uribarri auzoa, 26 Tfnoa: 79 20 51
JAI ZORIONTSUAK IZAN!

XARAMELA
TABERNA

San
Juanetako
giroa!

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Pisua saltzen da erdialdean.** Tfnoa: 79 37 96.
- **Etxebizitza salgai edo alokairuan.** 90 m² despatxua jartzeko oso aproposa. Tfnoa: 79 64 50.
- **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 45 74.
- **La Bastidan duplexa salgai.** Tfnoa: 79 65 39.
- **Peñiscolan apartamentu bungalow-a alokatzen da.** Hondartzatik gertu dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.
- **Etxebizitza alokatzen da Donostian,** uztaila abuztua eta baita ikasleentzat ikasturtean zehar ere. Tfnoak: 71 50 87 eta 71 4002.

Lana

- **Lan barik nago.** Edozein almazenetako edo antzerako lanetan lan egingo nuke. Tfnoa: 78 00 63.
- **Alemaneko ikastaro trinkoak uztailean.** Ordu-tegia konkretatzeko. Tfnoa: 79 78 75.
- **Uztailean ere ingelesez.** Talde txikiak! Tfnoa: 79 24 59.
- **Loragintza ikasketak egin dituen norbait behar da lorategi bat orduka zaintzeko.** Tfnoa: 79 44 47. Amaia.

- **OHoko klase partikularrak ematen dira uztailean.** Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 60 16. Henar.
- **Ingelesezko eta frantsesezko klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 47 90.
- **Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska behar da.** Kotxea beharrezkoa da. Tfnoa: 79 27 02.
- **Kontabilitateko klase partikularrak hartuko nituzke uztailean.** Tfnoa: 79 99 82. Maite.
- **Uztailean klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Uztailean OHoko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 05 59. Oskar.

Salerosketak

- **Bustner markako karabana salgai.** Sei lagunentzako plazakoa. Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 42 65.
- **Salgai;** Kastinger bota bikoitza, plastikozko karkasa eta botina. 42 numeroko. 5.000 PTA.
- **Kamet naruzko botak, ia berriak.** 38-39 zkia. 3.000 PTA.
- **Artiach motxila, 50-60 l.** 5.000 PTA.
- **Serval motxila, 30-40 l.** 3.000 PTA.
- **Forroa L'Igloo urdina.** taila 4. 5.000 PTA.
- **Contini markako karreterako bizikleta look pedalekin.** R-100 zapatilak eta kilometroak neurtzekoa. 30.000 PTA. Tfnoa: 79 15 07. Bittor.

- **Matrikula ingeleseko Kawasaki 550 GT 83 urtekoa salgai.** 150.000 PTA. Tfnoa: 79 90 36. Richard.
- **Transformatutako Vanette furgoneta salgai.** Ohea, sukalde, izozkailua, mahai, iturria etb. ditu. Tfnoa: 79 28 81.
- **Zeus markako bizikleta salgai.** 58. tailakoa. Oso egoera onean dago. Tfnoa: 79 94 71.
- **Renault Fuego GTX SS-T salgai.** Dei egin den da orduetan 79 73 90 tfnora.
- **Ezkontzeko soinekoa salgai,** buruko apaingarri eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motzaz. Neurriak: luzeera 165 zm bularra 85 zm eta gerria 68 zm. Prezioa: 80.000 PTA. Probatzeko, dei egin 76 17 81 edo (945) 24 32 55 tfnora.
- **Fagor markako sukalde berria salgai.** Bi su eta bi elektriko dauzka. Gas naturalekin erabiltzeko. Oso prezio interesgarria. Tfnoa: 79 38 16. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Ziklomotorra eta korredore bizikleta salgai.** Ia erabili gabeak. Prezio onean. Tfnoa: 78 10 41.
- **Citroën AX, GT hobekuntza askorekin salgai.** SS-AH. Tfnoa: 78 33 09.

Denetarik

- **Frantziako Pau herriko neska batek Arrasatera au pair modura etorri nahi du irailetik otsailera.** Tfnoa: 79 54 46.Urri.

Aste Gazte

Lanpostuak

Arrasateko Udalak zenbait lanpostu betetzeko deialdia egin du. Aldi baterako batzuk eta finkoak gainontzekoak. Udaletxean bertan lor dezakezue informazioa. Izena emateko epea: uztailak 5.

Gazte Ekintzak

Ikerketa, teknologian espezializazio eta teknologian zentroetako praktiken arloetan heziketa bekak. 89tik aurrera espezialitate teknikoren batetan lizenziatu direnei zuzenduak.

Ikastaroak

- **Iruñeko Udako Euskal Unibertsitatea:** uztailak 19-31. Arlo ezberdinak: artea eta komunikazioa, gizarte zientzia... Matrikula epea: ekaian 1-30. Bekak lor daitezke.
- **Joskintza Industrial ikastaroa.** Langabetuei zuzendua. Iraupena: irailetik maiatzera. Izena emateko azken eguna: uztailak 5.
- **Zaldian ibiltzeko ikastaroak** Urkulun. Uztaila eta irailen. 2 astetakoak, egunero ordubete. Goizez nahiz arratsaldez.

dez. Matrikula: langabetu eta ikasleentzako 6.000 PTA. 9.000 PTA gainontzekoentzat.

• **Parapente, rafting, piragismo eta kañoi jeitsierak.** Ikastaroak. Langabetu eta ikasleentzako prezio bereziak.

Lehiaketak


Portugaleteko jendaurreko IX. margo-sariketa. Uztailak 18. Teknika eta formato libreak. "Gazteak martxan" Arrasateko IV. Argazki lehiaketa; 2. maila. a) Deba garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak b) 21-35 edozein. Zuribeltz nahiz koloretan. Sari garrantzitsuak. Epea: urriak 29.

"Gazte irauteko gazteekin bizi behar, ez ordea, gazteak bezala"

CHARLES CHAPLIN



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



Izozkitegi S. L.

Gozotegia • Italiar izozkitegia • Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 81 68
ARRASATE

AGUSTIN
Auto-sonido
Karburazioa eta
autoentzako osagarriak

Uribarri Etorb., 16
Tfnoa: 79 73 58
ARRASATE




OLA-OSTE
Kirol denda

Bizkaia Etorb. 10
ARRASATE
TFNOA: 79 65 34



ARTOLA
KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE



ZARUGALDE

Albaitaria
Zarugalde 25
Tfnoa: 79 15 31
Urgentziak: 24 ordu

TABIRA
DIETETIKA

Kosmetika eta
produktu naturalak
Estetisiena

Munar, 8
ARRASATE

Lua
gozokiak

Erdiko kale, 8
ARRASATE
Tfnoa: 79 66 75

Erdiko kale, 37
Tfnoa: 79 90 36
ARRASATE



Burdiñate, 5
Tfnoa: 76 30 01
BERGARA

UZTAILEAN INGELESEKO
IKASTARO TRINKOA!

Maila guztiak. Adin guztiak. Ordu guztietan.

• ESAERA ZAHARRA •

“Ezin baduzu egin nabi duzuna, egizu abal duzuna”

• JEROGLIFIKOA •



Nola lapurtu zieten dirua?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10				11		
12			13			
14						
15				16		17
18					19	

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasate kale eta elkarte izena. 8. Hurrengo. 10. Emakume izena. 11. (Ald.) Jaurtiki. 12. Hitzak zailtasunez ahoskatu. 14. Kemeta. 15. Gaixo. 16. Abesbatz. 18. Nortasun Agiri Nazionala. 19. Aita.

Bertikalak 1. Urtaro bat. 2. Danimarkako hizkuntza. 3. Atea zaintzen duen futbolaria. 4. Esnatu aurretik. 5. Galtzak. 6. Erdi aroa. 7. Onila. 9. Erlatibitate Orokorren Teoria. 13. (ald.) Zen, orainaldian. 17. Rubidioa.

• HOROSKOPOA •

Aries Aste honetan ez zaizkizu gauzak nahi bezain ongi joango.

Taurus Mendizalea edonor da, puntaraino autoan joan eta gero.

Gemini Igari egiten ikastea komeni zaizu, bestela ito igingo zara.

Cancer Astoak baino buru gogoraboa zara, denon kalterako gainera.

Leo Beti eskatu egin beharrean, ematen ere ikasi beharko duzu.

Virgo Hain parranderoa izatea ez da ona osasunerako.

Libra Ez duzu batere dirurik izango aste honetan.

Scorpio Hainbeste otoi egiteak, orain ez dizu ezertarako balioko. Hurrengoan lehenago gogoratu.


Sagitaris Aste osoan lorik egin ezinik ibiliko zara.

Capricorn Zure gauzarik politena ma-traila gorri horiek dira.

Aquarius San Juanak ere badatoz, eta prest egon juerga egiteko.

Piscis Bi bider pentsatu gauzak egin baino lehen. Hobeto da eta.

• KOMIKIA •



UZTAILERAKO KULTUR EKINTZAK

Erakusketak

Monterron kultur etxea

Uztailaren 1etik 11ra

■ Pintura erakusketa

Monterroneko Pintura ikastaroa

Uztailaren 12tik 23ra

■ Pintura eta Zeramika erakusketa

Aita Menni ospitalean egindako lanak

Harresi Aretoa

Uztailaren 4a arte

■ Pintura - Iñigo Arregi

Uztailaren 9tik 25era arte

■ Pintura - M^a Carmen Garai

Zinea

Monterron Parkean

- Uztailak 1, 8 eta 15eko gaueko 10.30etan. Sarrera 300 PTA. (eguraldi txarra eginez gero, Amaia Antzokian)

Antzerkia

Monterron Parkean

(eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian)

■ Tunantes del Norte Antzerki taldea

“Una de casas”

Uztailak 2 gaueko 10,30etan

Sarrera 500 PTA. / Gazte Txartelarekin: 400 PTA.

Dantza

■ Kolonbiako talde folklorikoa

Uztailak 22 gaueko 10,30etan

Sarrera: 500 PTA. / Gazte Txartelarekin: 400 PTA.

Monterron Parkean

(eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian)



Arrasateko
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia

**NIRE
AUTOA
IZANGO
BAZINA
HORRELAKE
IDEIAK
IZANGO
ZENITUZKE**



Nire autoa bazina, autoa baino areago izango zinateke. Kontzeptu berri izango zinateke diseinu eta ingeniariatza alemaniarrean. Segurtasunari buruzko ideia berriak izango zenituzke; hala-nola gerriko autoteinkagarriak, albo-babeserako hagak, edo areago, Airbag, ABS, lapurretaren aurkako alarma... izan izan zenitzake. Birziklagarri izango zinateke 0095ean, eta

katalizatzaile eta aire egokituaz ekologikoa ere izango zinateke.

Nire autoa bazina zuzentza lagunduaz hornituko zintuzket; kanbio automatikoa, 6 bozgorailuko radio-kaseta, kristal-gorailu elektrikoa, eguzki-sapaia.

Nire autoa bazina 3 edo 5 ateko auto hau izango zinateke; Opel Corsa Berria.

ALDAGAIK: 3 eta 5 ate.
MODELOAK: CITY, SWING, SPORT, GLS eta GSi.
MOTOREAK: Gasolina-injekzioa 1.2 (45 CV); 1.4 (60 eta 82 CV); 1.6 16v (109 CV); Diesel 1.5 (50 CV) eta Turbodiesel (67 CV).

OPEL BERRIA
CORSA
NIRE AUTOA!

OPEL 

Z A I N G A U Z K A Z U

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Guipuzkoa)
Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria
Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABI. Pabellon A-13. Tel. 79 62 65

DENBORAREN PODERIOZ OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.